



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 13a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta ‘ekonomia soziala’”. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Junior-Enpresak sustatzeko neurriak ezar ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoaren arloko eskumen osoa eskuratzeko emandako hitza bete dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, euskara-ezagupenak direla-eta aplikaturiko baremoari buruzko epaiatz itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Osasunbideko gastua arrazionalizatzeari eta horrek laguntzaren kalitatean duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, lehen eta bigarren hezkuntzan hizkuntza eredu ezberdinetan izandako aurrematrikulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, irakaskuntzan euskara sartzeari buruzko 1988ko Foru Dekretua aldatzeko beste Foru Dekretu bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako”. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen”. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Oskiako harrobien zabalpena onura publikoa dela deklaratzeko espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, unibertsitatera sartzeko frogetarako batxilergoko ikasgaietan izendatu diren koordinatzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan kontratatutako irakasle kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, Los Arcosen eskualderako industrialdle bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legeko 8. artikulua aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko”. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaion”. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak”. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen”. Foru Diputazioaren erantzuna (48. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (49. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion”. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredia” izeneko proiektua bultzatzea dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (52. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gorteek gasolinaren gaineko zerga igotzeko hartu den neurria arbuiatzen dute”. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (57. or.).
- Galdera, Foru Erkidegokoak ez diren haur eskolatuen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (58. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta ‘ekonomia soziala’”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta ‘ekonomia soziala’”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta ‘ekonomia soziala’”. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen kabi-

neteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Ekonomia soziazat ulertu ohi da alde batetik autoenpleguak (langile autonomoak) eta lan sozietateek (anonimoak nahiz mugatuak) eta sozietate kooperatiboek sortzen dutena. Sozietate irregular ere esaten zaie, baina langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berean daude.

Honako hauek dira da ekonomia sozialaren-tzako laguntzei buruzko arauak:

A.- Nazio esparruko arauak:

– 1998-12-29ko Ministerio Agindua, “Ekonomia Sozialaren Garapena” programaren kargurako laguntza eta dirulaguntza publikoak emateko oinarriak ezartzen dituen; agindu hori ondoko ministerio aginduen bitartez aldatu da: 1999ko azaroaren 24ko Ministerio Agindua, 2000ko irailaren 4ko Ministerio Agindua eta 2001eko azaroaren 26ko Ministerio Agindua.

– 1986-02-21eko Ministerio Agindua, enplegua sortzeko zenbait laguntza programa ezartzen dituen (III. programa), ekainaren 24ko TAS/1702/2002 Ministerio Aginduak aldatua.

B.- Foru Komunitatearen esparruko arauak:

– Uztailaren 20ko 259/92 Foru Dekretua (III. programa), ekainaren 21eko 240/99 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 14ko 14/2002 Foru Dekretuak aldatutakoa.

Arauak behar bezala konbinatuz, ondokoa litzateke dirulaguntzen zenbatekoa:

A.- Autonomoak:

| LAGUNTZA | 2001. URTEA: | 2002. URTEA: |
|---------------------------|---------------|------------------------|
| Inbertsioa | 2.404,05 euro | 3.610 euro + 300 euro* |
| Dirulaguntza finantzarioa | 3.005,06 euro | 3.005,06 euro |
| Bizirauteko errentak | 1.502,53 euro | 3.005,06 euro |

* Igoera hau gertatzen da onuraduna emakumea edo 40 urtetik gorako pertsona bat denean.

B.- Lan sozietate anonimoak eta kooperatibak:

| LAGUNTZA | 2001. URTEA: | 2002. URTEA: |
|--------------------------------------|----------------|----------------|
| Bazkideak sartzea | 3.005,06 euro | 3.005,06 euro |
| Interesetarako dirulaguntza | 3.005,06 euro | 3.005,06 euro |
| Laguntza teknikoa | 18.030,36 euro | 18.030,36 euro |
| Irakaskuntzako kooperatibak | 24.040,48 euro | 24.040,48 euro |
| Hedapena, prestakuntza eta sustapena | 24.040,48 euro | 24.040,48 euro |
| Aktibo finkoetan inbertitzea | 3.005,06 euro | 3.005,06 euro |

2001eko ekitaldian honakoa izan da espedienteen kudeaketa:

A.- Autonomoak:

| LAGUNTZA | AURREKO URTETIK | | | | | ORDAIN-TZEKO | KOPURUA ¤ |
|-----------------------------|----------------------|-----------------|-------------|--------------|----------|--------------|--------------|
| | ORDAINTZEKE DAUDENAK | AURKEZ-TUTAKOAK | EMAN-DAKOAK | UKATU-TAKOAK | BESTERIK | | |
| Inbertsioa | 13 | 75 | 59 | 6 | 8 | 15 | 141.838,86 |
| Interesetarako dirulaguntza | 27 | 205 | 169 | 4 | 7 | 52 | 296.558,00 |
| Biziraupenerako errentak | 18 | 117 | 100 | 8 | 2 | 25 | 137.030,76 |
| GUZTIRA | 58 | 397 | 328 | 18 | 17 | 92 | 575.427,62 |

B.- Lan sozietate anonimoak eta kooperatibak:

| LAGUNTZA | AURREKO URTETIK | | | | | ORDAIN-TZEKO | KOPURUA ¤ |
|--------------------------------------|----------------------|-----------------|-------------|--------------|----------|--------------|--------------|
| | ORDAINTZEKE DAUDENAK | AURKEZ-TUTAKOAK | EMAN-DAKOAK | UKATU-TAKOAK | BESTERIK | | |
| Bazkideak sartzea | 7 | 102 | 79 | 4 | 3 | 23 | 495.834,99 |
| Interesetarako dirulaguntza | 3 | 41 | 36 | 0 | 5 | 8 | 194.653,90 |
| Laguntza teknikoa | 0 | 10 | 8 | 2 | 0 | 0 | 24.791,75 |
| Irakaskuntzako kooperatibak. | 0 | 10 | 8 | 0 | 1 | 1 | 130.231,13 |
| Hedapena, prestakuntza eta sustapena | 1 | 2 | 3 | 0 | 0 | 0 | 52.253,80 |
| Aktibo finkoetako inbertsioak | 2 | 99 | 76 | 1 | 1 | 23 | 720.280,05 |
| GUZTIRA | 9 | 264 | 210 | 7 | 10 | 55 | 1.618.045,62 |

Informazio hau Nafarroako Enplegu Zerbitzua-
ren oroit-idazkian dago, zalantzarik gabe parla-
mentari jaun horrek ezagutuko duena.

Aurtengo uztailearen 31n, honakoak dira kopu-
ruak:

A.- Autonomoak:

| LAGUNTZA | AURREKO URTETIK | | | | | ORDAIN- TZEKO | KOPURUA ¤ |
|-----------------------------|-------------------------|---------------------|-----------------|------------------|-----------|------------------|-------------------|
| | ORDAINTZEKE DAUDENAK | AURKEZ- TUTAKOAK | EMAN- DAKOAK | UKATU- TAKOAK | BESTERIK | | |
| Inbertsioa | 15 | 272 | 114 | 14 | 9 | 150 | 397.279,35 |
| Interesetarako dirulaguntza | 52 | 94 | 105 | 4 | 13 | 24 | 224.658,86 |
| Biziraupenerako errentak | 25 | 44 | 38 | 5 | 4 | 22 | 54.391,58 |
| GUZTIRA | 92 | 410 | 257 | 23 | 26 | 196 | 676.329,79 |

Horrek aurrekontuaren % 62,52 egiten du.

B.- Lan sozietate anonimoak eta kooperatibak:

| LAGUNTZA | AURREKO URTETIK | | | | | ORDAIN- TZEKO | KOPURUA ¤ |
|--------------------------------------|-------------------------|---------------------|-----------------|------------------|----------|------------------|-------------------|
| | ORDAINTZEKE DAUDENAK | AURKEZ- TUTAKOAK | EMAN- DAKOAK | UKATU- TAKOAK | BESTERIK | | |
| Bazkideak sartzea | 23 | 58 | 53 | 8 | 0 | 20 | 300.506,00 |
| Interesetarako dirulaguntza | 8 | 24 | 18 | 0 | 0 | 14 | 77.578,93 |
| Laguntza teknikoa | 0 | 2 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1.200,00 |
| Irakaskuntzako kooperatibak. | 1 | 10 | 10 | 0 | 0 | 1 | 161.567,90 |
| Hedapena, Prestakuntza eta Sustapena | 0 | 3 | 1 | 0 | 0 | 2 | 18.030,36 |
| Aktibo finkoetako inbertsioak | 23 | 86 | 33 | 1 | 1 | 74 | 296.759,39 |
| GUZTIRA | 55 | 183 | 116 | 9 | 1 | 112 | 855.642,58 |

Horrek aurrekontuaren % 63,27 egiten du.

Ukoa emateko arrazoi nagusiak espedienteak epe kanpo aurkeztea edo arauak eskatutako ezinbesteko baldintzaren bat ez betetzea izan dira.

Aipatu beharra dago Nafarroako Gobernuak ekonomia sozialari ematen dion laguntza jarraitua izan dela eta izaten jarraitzen duela, Parlamentuan mozioak, jabeldurak, galderak edo erabakiak aurkeztu zein ez. Betidanik ulertu dugu ekonomia soziala oso elementu baliagarria dela errenta eta enplegua sortzeko eta, askotan, norberaren errealizatorako ere, ekonomia klasikoak eskaintzen dituen bestelako bide alternatiboetatik.

Aipatu beharra dago, era berean, 2002. urtera-
ko aurrekontu proiektuan 360.607,26 euro aurrei-
kusten zirela "Kooperatibetan eta lan sozietate-
tan enplegua laguntzeko transferentziak" izeneko
lerroan, hain zuzen ere horrelako laguntzen eska-
riari aurre egiteko.

Honelako enpresez arduratzen den elkartea
(ANEL) guztiz ados zegoen Gobernuak proposa-
tutako aurrekontuekin, bai eta arauetan sartzeko-
ak ziren aldaketekin ere. Bigarrena (aldaketak)
urtarrilaren 14ko 14/2002 Foru Dekretuaz gauzatu
behar zen; oro har autonomoentzako eta, berezi-
ki, emakume autonomoentzako laguntzak handi-
tuko ziren, baina kontusaila ezin izan zen handitu,
galdegileak ongi dakien moduan.

Betiere, komeni da argi eta garbi uztea Nafarroako Gobernuak ekonomia soziala laguntzen jarraituko duela, enplegua eta aberastasuna sortzeko bide gisa; horretarako, egoki jotzen diren neurriak hartuko dira eta behar diren aurrekontu-baliabideak ezarriko dira.

Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 75, -76 eta -77 artikuluetako X. tituluak (merkataritza txikirako sostengu neurriak) –zeinak 2001eko uztailaren 17an hartu baitzuen indarra– aurreikusten du, erregelamenduen garapenaren bidez, premiazkoa dela merkataritza txikirako laguntza plan bat presatzea eta langileentzako prestakuntza orokorreko plan bat eta enpresa kudeaketa hobetzeko prestakuntza berariazko beste bat, merkataritza txikiaren elkarteak sustatuko dituzten jarduketa egoekiekin batera.

Merkataritza Departamentuak merkataritzaren sektorea laguntzeko neurriak arautzen dituen foru dekretu bat landu du, Nafarroako merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko X. tituluak aurreikusitako lege-agindua garatuz; izan ere, hartan saltoki txikiei laguntzeko neurrien erregelamendu bidezko garapena aurreikusi zen.

Arau horiek eragile ekonomikoei eta sozialei kontsultatu zaizkie, eta hemendik gutxira Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari igorriko zaizkio. Gero, Gobernu Kontseiluari behar den erabaki proposamena aurkeztuko zaio, kasuan kasuko aldaketekin.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua:
Jorge Nagore Frauca

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Gobernua ikuskizun publikoak eta

josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan premiatzen duen erabakiaren betetzea –hain zuzen, Osoko Bilkurak 2002ko apirilaren 18an onetsia–. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordu-tegi orokorra arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak prestatu zuen, Nafarroako Gobernuari dagokion araugintza ahalmenaz baliatuz eta Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 12. artikuluan ezarritako lege-agindua betetz; izan ere, azken horretan xedatu zen ordu-tegi orokorra erregelamenduz ezarriko dela. Hala ere, lehen xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernuari ematen dio foru legea garatu eta bete-arazteko behar diren xedapenak emateko ahalmena.

Ordezkatzen dudana Departamentuak, honelako arau batek kalte ditzakeen interesez oharturik, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta administrazioa arautzen dituen Foru Legeak erre-

gelamenduak egiteko ezartzen duenaren arabera, ekainaren 29ko 136/2001 Foru Aginduaren bidez –2001eko irailaren 19ko 114. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua–, proiektu hori hilabetez jarri zuen jendaurrean, ukitu edo interesatu guztiek, banaka zein kolektibo moduan, egoki jotzen zituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko. Gainera, jendaurreko garai honen aurretik, bera bitartean eta haren ondotik ere, departamentu honek bilerak izan ditu Nafarroako herri garrantzitsuenetako alkateekin, betiere biztanle kopuruari eta bertan dauden lokal publikoei erreparatuta, bai eta eskatu duten auzokideen elkarte eta taldeekin ere. Azken batean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, proiektua idatzi duenak, ukitutako guztien interesak ezagutzeko jarrera argia izan du, eta, horrenbestez, antolamendu juridikoak horretarako aurreikusten dituen prozedurez baliatu da.

Elkarrizketa hauen eta jendaurreko informazio-ko epean aurkeztutako alegazioen ondorioz, departamentu honek ongi ezagutzen du proiektuak sortzen dituen arazo sozioekonomiko eta soziologikoak, gutxienez ere enpresarien, alkateen eta herritarren ikuspegitik; izan ere, esan beharra daukat inongo gaztek, ez banaka ez elkartean bitartez, ez duela alegaziorik aurkeztu. Horretatik ondorioztatu behar da ez dela horrenbestekoa proiektu horrek Nafarroako gizartearen aisia-ohituretan izanen duen eragina. Hori guztia ulergarria da, zeren eta ordutegiei buruzko etorkizuneko foru dekretuak ixteko ordutegia murriztu baino taberna berezien eta dantzaleku eta diskoteken ixteko ordua atzeratzen baitu, ordu erdi udan eta ordu-bete urtean zehar, betiere dekretu horrek indarra hartu aurreko egoerarekin alderatuta.

Bestalde, azpimarratu beharra dago inguruko autonomia erkidegoetako bakarrak ere ez duela biharamuneko gau-egunsentian jarduera izanen duten establezimendu publikoek ixteko ordutegi aldekoagoa; hori dela eta, araubide berriak indarra hartzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, gazte nafarrak inguruko herrietara joatea. Alderantziz, gure gazteak Foru Komunitatean geratzea erraztuko du, trafiko istripuak eta bide segurtasuneko arazoak saihestuz.

Horri dagokionez, esan beharra dago Aragoiko Erkidegoan diskotekak eta dantzalekuak 4:00etan ixten dituztela eta Errioxan eta Euskal Autonomia Erkidegoan 05:30ean udan, eta ordu erdi lehena go urteko gainerako sasoiaren; Nafarroan, ordea, aipatu proiektuaren arabera, 06:00etan itxiko lirasteke urte osoan.

Bukatzeko, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak hertsiki bete du arauak presta-

tzeko lege-prozedura, ukitu guztiei entzunaldi handiena bermatzeko tresna guztiak jarritz, auzi honetan biltzen diren inguruabar sozioekonomiko eta soziologiko guztiak ezagutzeko.

Horrenbestez, ez dugu uste beharrezkoa denik mozioan proposatzen den elkarrizketa mahaia sortzea, are gehiago Gobernuaren politika interes kontrajarriak dauzkaten parte-hartzaileek osaturiko elkarrizketa foro baten emaitzaren arabera baldintzatu nahi direnean; hori dela eta, nekez sinatuko litzake denak konformatzeko moduko akordiorik.

Hau da, elkarrizketa eta parte-hartzea kaltetu gabe, oraingoan argi baitago modu exhaustiboan erabili direla, ezin dugu erregelamendu-ahalmeneren baliatzea elkarrizketa mahai baten emaitzen mende jarri, eta halakorik ez dugu egin behar, mahai horretan ukitutako sektore guztietako ordezkariak izanda ere, erabakiak dioen bezala, zeren eta horrek Nafarroako Gobernuaren ahalmenak gutxitzea ekarriko bailuke.

Beste ikuspegi batetik, proiektuak ostalaritza establezimendu batzuen (tabernak eta taberna bereziak) berrantolamendua bultzatuko du, lokalen segurtasun eta intsonorizazio baldintzak hobetzeari begira, eta aukera emanen du tabernak eta diskotekak ez daitezen irekirik egon asteburu goizetan; horrek, zalantzarik gabe, lasaitasun eta segurtasun handiagoa bideratuko du jarduera horiek ezartzen diren lekuetan.

Hala eta guztiz ere, ez dugu uste azterlan sozioekonomiko bat egitea beharrezkoa denik, zeren eta aipatu proiektuak, egun indarra duen Foru Dekretuaren aldean, lokal publikoak ixteko ordutegia zabaltzen baitu, eta, gainera, zenbait tresna aurreikusten ditu alkateek ordutegia zabaltzeko ahal izan dezaten, hartara tabernen berrantolamenduak ekar ditzakeen kalteak ahal den guztian saihestuz. Hori dela eta, oro har, esan behar da ordutegiei buruzko foru dekretuak ez duela ostalaritzarako eragin ekonomiko negatiborik edukiko.

Horrenbestez, azaldutako arrazoiengatik eta Administrazioaren ekonomia eta eraginkortasun printzipio funtsezkoenari begira, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du uste elkarrizketa mahairik behar denik, ez eta aipatu diren azterlanak egiterik ere, zeren eta uste baitu, azken batean, tresna horiek Nafarroako herritarrei eginiko kontsultaren eta alegazioen azterketaren eta analisiaren xede bera dutela, alegia, ukitutakoen errealitate sozioekonomiko eta soziologikoa ezagutzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Gobernua Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan premiatzen duen erabakiaren betetzea. Galdera hori Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2002ko uztailaren 5ean onartu zuen tramitera. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Behin eta berriz adierazi dudan bezala, nire Departamentuak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuari eutsi eta hura garatzeko aurrera eramandako jardueren jomuga beti izan dira Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzendarian bildutako helburuak eta jarraibideak izan dira.

Hain zuzen ere, Parlamentuaren erabakian aipatzen diren alderdiak direla eta, ondokoa esan behar dugu:

1. Parke zentralaren kokapena.

Horretan ari gara, suhiltzaileen parke zentrala Iruñerrian eraikitzea dela-eta zenbait alternatibaren egokitasuna ebaluatzen. Kokapen ezberdinak aztertu dira, denak hiriburuko eskualdearen ipar-ekialde eta hego-mendebaldean.

Cordovillan suhiltzaileen parke bat egiteko proiektuaren kontratazioak ez da arazo etorkizuneko parke zentrala eraikitzeko; jarduketa hori alternatiboa da eta plan zuzendariko 11.2 proposamenaren eta hura onesteko Nafarroako onetsi zuen zazpigarren erabakian bildutakoa ordeztatu du.

Miluzen azpiegiturak jartzeko egin beharreko inbertsioek –azken urteetan etengabe egin dira azpiegitura lanak– ez dute konpontzen basearen kokapen txarra, zeren eta Noain-Iruñeko Aireportuaren inguratze-bidean baitago eta komunikazio txarrak baititu. Inbertsio horiek, beraz, ezin dira konponbidetzat hartu, instalazioak berez eskasak direlako.

Cordovillako parkeak, 50.000 metro koadro baino gehiagorekin, urte osoan izanen ditu langileak –besteak beste, erreskate lanetan espezializatutakoak, eta profesionalekin batera, oihan kanpainarako kontratatutakoak–. Bertan, gainera, ibilgailu eta material espezializatuak egonen dira, bereziki mendi-ebakuazioetarako bitartekoak eta aire-bitartekoak ere.

Azken batean, Cordovillako suhiltzaileen etorkizuneko parkeak ez du ezertan oztopatzen parke zentral bat eraikitzea, eta aukera emanen du Miluzeko instalazioak uzteko; gainera, Aralar kaleko parkeari babesa emateko moduko instalazio bat izanen da, eta gai izanen da zenbait eskualdeko hiri aldeetan zuzeneko laguntza emateko; alde horietako asko, izan ere, gora egiten ari dira eta indar handia dute. Bestalde, hobekuntza estetiko nabarmena ere ekarriko du, eta egokitasun han-

diagoa lan osasunaren ikuspegitik, gaur egun zerbitzu hauek ematen dituzten establezimenduen aldean.

2. Nafarroako Parlamentuaren erabakiak zenbait kontutan jartzen du azpimarra, hala nola suhiltzaileen lan baldintzak hobetzea, betidanik eta gaur egun ere nire Departamentuak guztiz sustatu dituenak. Egia esatera aipatu erabakiak ez du inongo ekarpenik egiten Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua dela-eta egiten ari denerako. Eztabaidatutako planean –Nafarroako gobernuak guztiz bere egin duena– jasotako aurreikuspenen betetze hutsak berekin dakar suhiltzaileen lan baldintzak nabarmen hobetzea; Segurtasun Eskolako langileen beharrianak modu iraunkorrean bete dira –hain zuzen ere, suhiltzaileen prestakuntzaz arduratzen den eskola da–, eta funtzionario batekin bete da Partzuergoko Prestakuntza Fisiko eta Kiroleko lizentziatuaren plaza, eta horrek aukera emanen du aurrerantzean modu egokiagoan eta egonkorragoan aurre egiteko suhiltzaileen prestakuntza fisikoari, suhiltzaileen parkeetako instalazioetan gauzatu beharrekoa, kasua bada; Segurtasun eta Osasun Batzorde propio bat daukanetik, Partzuergoak hitzarmen bat sinatu du Nafarroako Gobernuarekin mankomunaturiko lan arriskuen prebentziorako zerbitzu bat eratzeke; 1.835.786 ¤ inbertitu dira bost urtetan (1996tik 2000ra) suhiltzaile profesionalentzako parkeak egokitzeko; eta 6.621.072 ¤ ibilgailuen parkea berritzeko –ibilgailuen batez besteko antzintasuna 14 urtekoa izatetik 6 urtekoa izatera iragan da sei urtetan (1996-2001).

Baina azaldutako guztia nahikoa adierazgarria bada ere, nire Departamentuak suhiltzaileek lan egiteko baldintzak modu eraginkorrean hobetzeko daukan borondate irmoari buruz, azpimarratu beharra dago inoiz ere ez dela elkarriketarik falta izan Partzuergoko langileen ordezkariekin, ezta gaur egun ere, nahiz eta batzuetan haiei entzuteko prest zeuden hirugarrenengana jo izan duten

edo egoera indar-neurriekin tenkatu nahi izan duten, beren zilegizko interesen defentsan hala jokatzeko egokia zela iruditu zaienean.

3.- Plan zuzendarian plantillari buruz bildutako aurreikuspenak, oro har, bete egin dira. Gaur den egunean 40 suhiltzaile berri Segurtasun Eskolan beren prestakuntza bukatzeko pronto daude; haiek plantillan sartzen direnean, 370 pertsona egonen dira –Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzendarian aipatzen diren 376 pertsona aipatzen dira–. Gainera, aurreikusirik dago urte bukaera baino lehen suhiltzaile lanpostu berriak betetzeko oposiziorako deialdia egitea (20 eta 40 lanpostu berri), bai eta 2003. urteko lehen lauhilekoan agintari eta ofizialen igoerarako deialdia ere.

4.- Segurtasun Eskolako langileen hornitze iraunkorrari buruz argudiatutakoari –esan bezala eginik dago–, erantsi beharra dago datozen sei hilabetetarako programaturiko helburu bat dela suhiltzaileen heziketarako eta prestakuntzarako behar diren langileen heziketako eta prestakuntzako baliabide pertsonal eta materialak espezializatzea, bai kidegoan sartzeari dagokionez, bai birziklatzeari eta sustapenari dagokienez ere.

5.- Azkenik, aipatu beharra dago gaur eguneko eraginkortasunari eta prestazio-mailei etorkizunean eusteko jarraitu beharreko lerro edo jarraibide estrategikoak bereiztea bideratuko duten plangintzako tresna egokiak prestatzen ari dela Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua, bai eta horiek Foru Komunitatearen errealitate ekonomikoari egokitzeko behar duten garapenerako behar direnak ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Junior-Enpresak sustatzeko neurriak ezar ditzan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Junior-Enpresak sustatzeko neurriak ezar ditzan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Junior-Enpresak sustatzeko neurriak ezar ditzan”. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak duen Unibertsitate-Gizarte Fundazioak zenbait proiektu aurkeztu eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza batzuk onetsi ditu proiektu horietarako; Nafarroan junior-enpresak sortzeko jarduketara-ildo bati ekin nahi zaio, eta kopurua 56.475,95 eurokoa izanen da.

Batetik, Fundazioarekin 2002 urterako sinatutako hitzarmenean, Unibertsitateko Enpleguaren Zerbitzuaren jardueretarako hitzarmenean (2002ko martxoaren 25eko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 893 Ebazpena), Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 18.050 euroko ekarpena egin zuen –ekintzek guztira 25.050 euro egiten zuten–. Ekintza horiek bideratuta daude enpresak abian jartzearen kultura bultzatzera eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan junior-enpresen sorrera ere bultzatzera.

Egun, Unibertsitate-Gizarte Fundazioa tekniko bat hautatze bidean da, enpresa horiek bultzatu eta garatuko dituen tekniko bat.

Bestalde, Europako EQUAL ekimeneko TEKNIKA proiektuaren barruan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ere finantzatzen baitu, zenbait laguntza-jarduketa aurreikusi dira junior-enpresak eratzeko, bai eta enpresetako bazkideei aholkuak eta prestakuntza emateko ere; aurrekontua 38.425,95 eurokoa da.

TEKNIKA proiektuko 3. ekintzako 4. neurriaren deskribapena hau da:

3. ekintza. Enpresak abian jartzearen kultura sustatzea Unibertsitatean, junior-enpresak bultzatuz eta sortuz.

Azken helburu du Nafarroako Unibertsitate Publikoan junior-enpresak sortzea, horrela gazte enpresa-sortzaileak motibatu eta eskarmentua har dezaten.

Halaber, Nafarroako junior-enpresen federazioa sorrarazi nahi da, eta hori, gero, Junior-enpresen Espainiako Konfederazioan sartzea ahalbidetu.

Junior-enpresak honela definituta eta itxuratuta daude arauetan: ikasleek osatzen dituzte, unibertsitatean behar dute egon, espezialitateen arabera zerbitzu zehatzak ematen dituzten benetako enpresak dira, departamentu edo enpresa-arlotan antolatzen dira edozein enpresa bezala eta urtero benetako fakturazioa izan behar dute.

Honela lan egingo da:

– Lehen fasean, junior-enpresak sor ditzaketen ikasle taldeak sentsibilizatu, informatu eta bilduko dira.

– Hurrengoan, enpresa eratzeko aholkuak emanen zaizkie (negozio ideiak, estatutuak, etab.)

– Hirugarren fasean, enpresa kudeatzeko prestakuntza baliagarria emanen zaie unibertsitateko zaintzaile eta aholkularien tutoretzen bidez –bertaratzekoak eta urruneko tutoretzak.

– Fase horretan, beste erkidego edo herrialde batzuetako saioak bertatik bertara ezagutu eta junior-enpresa horiekin praktika zuzenen trukea egingen da.

– Azken fasean, lehenbiziko bezeroak lortzen lagunduko zaie, haiekin batera eginez lan hori, eta gauzaten dituzten jardueren jarraipena eginen da, ikasleak betiere dinamizatuz eta motibatuz.

Junior-enpresen osaeran, ehuneko 60 emakumezkoak izanen dira, eta, edozein enpresatan bezala, ezgaitasunak dituzten ikasleen integrazioa bultzatuko da.

Tutoretzetarako nahiz prestakuntzarako komunikazioaren teknologiak erabiliko dira: posta elek-

tronikoa, Internet, enpresa birtualekin izaniko kasuekiko lana (enpresaren jarduera-arloetako kasuak), web-guneen sorrera, atari egokietan agertzea, etab.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoaren arloko eskumen osoa eskuratzeko emandako hitza bete dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoaren arloko eskumen osoa eskuratzeko emandako hitza bete dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Komunitatearen Egoerari buruzko eztabaidan onartutako hurrengo erabakiaren betetzea: Nafa-

rrako Gobernua trafikoaren arloko eskumen osoa eskuratzeko emandako hitza bete dezan premiatzen zuen erabakia.

Nafarroako Gobernuak 2002ko uztailaren 22an erabakia hartu zuen Estatuari formalki eskatzeko eskumen hori itzul dezala, ahal bada, eta Estatu-ko legedia betearazteko ahalmena eman dezala trafiko, ibilgailu motoredunen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko gaietan, eta hitzarmen proiektu bat onetsi zuen Nafarroa eta Estatuaren arteko negoziaketaren oinarri izanen dena helburu hori lortze aldera.

Erabaki horren ziurtagiria Administrazio Publikoetako Ministerioko eta Barne Ministerioko erre-gistroetan 2002ko uztailaren 31n sartu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila-ria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, euskara-ezagupenak direla-eta aplikaturiko baremoari buruzko epaiatz itauntzen duena

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak euskara-ezagupenak direla-eta aplikaturiko baremoari buruzko epaiatz itauntzen duen galdera bat egin zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledunak, 2002ko ekainaren 7an, 64/2002 galdera egin du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2002ko apirilaren 23an emaniko epaia betetzeko Nafarroako Gobernuak egin behar dituen buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak, 2002ko apirilaren 23an epaia eman zuen, non baietsi egin zuen hein batean Begoña Belarra Telletxea andreak ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Epaia araberan, Nafarroako Gobernuak 2000ko otsailaren 21ean emaniko ebazpena ordenamendu juridikoaren kontraketat jo zuen; ebazpen horrek ezetsi egin zuen Begoña Belarra Telletxea andreak OLT/EDU izateko 189 lanpostutarako Osasunbidea eginiko deialdiaren txanda irekiko behin betiko baremoaren kontra aurkeztu zuen gora jotzeko errekurtsoa.

Aipatu epaiaren epaitzak administrazioari agintzen dio "prozedura eraman dezala akats hori gertatu zen momentura, eta lehiaketako epaimahaiak euskara proba egin zuen organo teknikoari eska diezaiola, 1999-12-09an ofizio bidez eskatu zion bezala, txostena egiteko, eta, emaitza duenean, balara dezala baremoko 4. idatz-zatiaren arabera, eta har ditzala horren ondotik behar diren erabakiak."

Ondoren, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, 2002ko maiatzaren 27an emaniko ebazpenaren bidez, aipatu epaia betetzeko agindu zuen, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari

eskatu zion egin zitzala egin beharrekoak epaiatz agindutakoa gauzatzeko.

OLT/EDU izateko 189 lanpostutarako oposizio-lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak bilera egin zuen 2002ko ekainaren 3an, eta, epaia ikusita, Begoña Belarra Telletxeari Hizkuntza Politikako Zuzendaritzan eginiko probei zegokien gaitasun agiria eskatzea erabaki zuen euskarazko baldintza zuten lanpostuetarako.

NAPIko Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuko zuzendariak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eginiko eskaerari jarraituz, txostena eman zuen hizpide dugun oposizio-lehiaketan eginiko euskara-mailako probei buruz. Honela zioen:

- 1999ko urriaren 22an, Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko Programazio eta Ikerketa Zerbitzuak, proba egin ondoren, ziurtagiria igorri zuen, hau da, aurkeztu ziren pertsonen zerrenda eta zehazki zer maila lortu zuten (urratsak) ahozko proban nahiz proba idatzian.

- Ziurtagiriak ikusita, ondorioa da aurkeztutako inork ez zuela GAI emaitza lortu euskara jakitea nahitaezko baldintza zuten lanpostuetarako, inork ez baitzuen eskatutako maila lortu proba bietan, esan nahi baita ez baitzuen lortu gaitasun agiria (12 urrats).

- Begoña Belarra Telletxea andreak 10. urratsa lortu zuen proba idatzian (12 urrats dira) eta 12. urratsa ahozkoan; beraz, ez zuen behar adinako euskara-mailarik frogatu euskara jakitea nahitaezko baldintza zen lanpostuak hautatzeko.

- Interesdunak euskara baldintza ez zen eremu euskalduneko lanpostu bat hautatu nahi bazuen, II. eranskineko 4. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera 5,5 puntuko emaitza izanzen zuen, hori baita lortutako bi emaitzen batez bestekoa.

2002ko ekainaren 21ean, epaimahai berrir bildu zen ikusteko NAPIko Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuko zuzendariak igorritako idazkia. Bilkura hartan, epaimahaiak erabaki zuen, NAPIko Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuko zuzendariak igorritako txostenari jarraituz, Begoña Belarra Telletxea andreak, euskarazko gaitasun proba gaitasun ez zuenez, ez zituela euskarazko lanpostuak hautatzeko baldintzak betetzen, eta hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileari igorri

zizaion Nafarroako Auzitegi Nagusiko epaia betetze aldera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Osasunbideko gastua arrazionalizatzeari eta horrek laguntzaren kalitatean duen eraginari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Osasunbideko gastua arrazionalizatzeari eta horrek laguntzaren kalitatean duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, 2002ko ekainaren 6an, galdera egin du Osasunbideko gastua arrazionalizatzeari eta horrek laguntzaren kalitatean duen eraginari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Honakoak dira N Pabilioiko lehen solairuko obrei ez ekiteko arrazoiak: solairu bereko gaixoen gelak, langile sanitarioen bulegoak eta alde komunak (Erizaintzako kontrola eta abar) berritzeko eta hobetzeko lanei ekin behar izatea eta beste solairu bateko itxarongela berria egokitzea, hain zuzen ere N Pabilioiko 1. solairuko beharizaneiei eta H-1.a Pabilioiko kirurgiako esparrukoei batera erantzuteko.

Obrak egin bitartean, Neurokirurgia Zerbitzuko gaixoak eta langileak N-2 eta N-3 pabilioitan eta

Ospitaleko beste egoitza batzuetan kokatu dira, ahal ziren baldintza onenetan, hain zuzen ere une honetan posible diren bakarretan, Ospitaleak beste egoitzarik ez baitu; izan ere, C-1.a Pabilioia ezin da aintzat hartu, bi urtetik hona ez baita erabili gaixoak ospitaleratzeko.

Aipatu beharra dago, era berean, behar diren neurri guztiak hartu direla gaixoei, ahaideei eta ukitutako langileei arazorik ez sortzeko; ongi hartu dituzte guztiek ohiko egoitzak ixtea, horren helburuak ulertzen baitituzte. Era berean, egoitza horiek itxi eta hilabeteko epean ez da zuzendaritza honetan inongo kexurik edo erreklamaziorik aurkeztu N Pabilioiko lehen solairua obrak egiteko itxi izateagatik.

Obrak egiteko erabakiak ez du inongo eraginik, ez positiborik, ez negatiborik, oporraldietan egin ohi diren kontratazioetan, zeren eta ospitaleak, duela lau urtetik hona, udako hilabeteetan ospitaleratzearako oheak gutxitu egiten baititu, zentroaren funtzionamendua laguntza programatuaren eskari txikiagoari eta langileen oporraldiei egokitzeko xedez. Horrenbestez, aurreko urteen aldean ez dugu inongo ordezkapenik kendu behar, zeren eta aurtengo udan blokeaturiko ospitaleratze-oheen kopurua aurreko urteetako oso antzekoa baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko irailaren 4an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan”.»

| IRUÑA | SAN IGNACIO | G | 77 | 645 |
| IRUÑA | SANTA CATALINA LABOURÉ | G | 48 | 142 |
| IRUÑA | SANTA Mª LA REAL | G | 221 | 486 |
| IRUÑA | SANTA TERESA DE JESÚS | G | 151 | 329 |
| IRUÑA | SANTÍSIMO SACRAMENTO | G | 59 | 142 |
| IRUÑA | SANTO TOMÁS | G | 24 | 25 |
| IRUÑA | SANTO TOMÁS | A | 108 | 272 |
| IRUÑA | URSULINAS | G | 283 | 468 |
| IRUÑA | VEDRUNA | G | 154 | 307 |
| LESAKA | TANTIRUMAIRU IKASTOLA | D | 29 | 46 |
| LIZARRA | LIZARRA IKASTOLA | D | 134 | 268 |
| LIZARRA | SANTA ANA | G | 43 | 122 |
| LIZARRA | SANTA ANA | A | 88 | 195 |
| LODOSA | LA MILAGROSA | G | 40 | 95 |
| MENDABIA | Nº SRA. DE LOS DOLORES | G | 17 | 0 |
| MENDABIA | Nº SRA. DE LOS DOLORES | A | 65 | 0 |
| MUTILOA | LUIS AMIGÓ | G | 150 | 308 |
| RIBAFORADA | SAN FRANCISCO JAVIER | G | 33 | 0 |
| TAFALLA | ESCUELAS PÍAS | G | 0 | 61 |
| TAFALLA | ESCUELAS PÍAS | A | 0 | 192 |
| TAFALLA | GARCÉS DE LOS FAYOS | D | 87 | 138 |
| TAFALLA | SAN JOSÉ | G | 142 | 0 |
| TAFALLA | SAN JOSÉ | A | 0 | 0 |
| TUTERA | ANUNCIATA | G | 153 | 333 |
| TUTERA | COMPAÑÍA DE MARÍA | G | 226 | 498 |
| ZANGOZA | ZANGOTZAKO IKASTOLA | D | 38 | 108 |
| ZIZUR TXIKIA | SAN FERMÍN IKASTOLA | D | 274 | 500 |
| ZIZUR TXIKIA | MIRAVALLS | G | 250 | 275 |
| ZIZUR TXIKIA | VIRGEN DE ORREAGA | G | 0 | 0 |
| | GUZTIRA | | 5.954 | 11.693 |

Ikastetxe pribatuetako derrigorrezko irakaskuntza

2002-2003 ikasturtea

DBHko matrikulen aurreikuspena

| HERRIA | IKASTETXEA | Ere. | 1.a | 2.a | 3.a | 4.a | CEU | Curr .aniz. |
|-------------------|---------------------------------------|------|------|------|------|------|-----|----------------|
| ALTSASU | Sakana Ikastola | D | 66 | 50 | 50 | 62 | | |
| ALTSASU | Seminario Sagrado Corazón | A | 25 | 40 | 33 | 27 | | |
| ATARRABIA | Paz de Ziganda | D | | | | | | |
| ATARRABIA/BURLATA | La Presentación - Notre Dame | G | 55 | 54 | 56 | 46 | | |
| BARAÑAIN | Santa Luisa de Marillac | G | 56 | 63 | 59 | 63 | | |
| BURLATA | Amor de Dios - Regina Pacis | G | 19 | 33 | 30 | 25 | | |
| BURLATA | Amor de Dios - Regina Pacis | A | 26 | 35 | 33 | 30 | | |
| BURLATA | Irabia | G | 53 | 57 | 65 | 56 | | |
| GARES | Sem. Padres Reparadores | G | | | | | | |
| IRUÑA | Calasanz | G | 24 | 31 | 45 | 46 | 10 | |
| IRUÑA | Calasanz | A | 29 | 45 | 26 | 33 | | |
| IRUÑA | Cardenal Larraona | G | 57 | 62 | 66 | 64 | | |
| IRUÑA | Jaso Ikastola | D | 46 | 43 | 48 | 34 | | |
| IRUÑA | Hijas de Jesús | G | 54 | 55 | 57 | 57 | | |
| IRUÑA | Nª Sra. de la Compasión | A | 55 | 61 | 52 | 54 | | |
| IRUÑA | Nª Sra. del Huerto | G | 55 | 52 | 61 | 62 | | |
| IRUÑA | Sagrado Corazón | G | 65 | 64 | 72 | 74 | | |
| IRUÑA | Salesianos | G | 35 | 60 | 60 | 57 | 10 | |
| IRUÑA | San Agustín | G | 50 | 53 | 59 | 44 | | |
| IRUÑA | San Cernin | G | 101 | 119 | 123 | 128 | | |
| IRUÑA | San Ignacio | G | 112 | 123 | 122 | 123 | | |
| IRUÑA | Santa Catalina - Santísimo Sacramento | G | 45 | 62 | 60 | 49 | | 16 |
| IRUÑA | Santa María la Real | G | 90 | 117 | 143 | 114 | | |
| IRUÑA | Santa Teresa de Jesús | G | 60 | 67 | 64 | 71 | | |
| IRUÑA | Santo Tomás | G | 45 | 63 | 62 | 52 | | 4 |
| IRUÑA | Santo Tomás | A | 8 | | | | | |
| IRUÑA | Ursulinas | G | 89 | 91 | 99 | 100 | | |
| IRUÑA | Vedruna | G | 52 | 46 | 63 | 38 | | |
| LIZARRA | Lizarra Ikastola | D | 69 | 63 | 74 | 63 | | |
| LIZARRA | Mater Dei - Puy - Anderaz | G | 96 | 91 | 95 | 97 | 8 | 12 |
| MUTILOABEITI | Luis Amigó | G | 52 | 60 | 64 | 44 | 7 | |
| TAFALLA | Escuelas Pías | G | 31 | 51 | 68 | 39 | | |
| TAFALLA | Escuelas Pías | A | 11 | | | | | |
| TAFALLA | Garcés de los Fayos | D | 18 | 19 | 25 | 21 | | |
| TUTERA | Anunciata | G | 52 | 57 | 70 | 70 | | |
| TUTERA | San Francisco Javier | G | 143 | 139 | 179 | 145 | | |
| ZANGOZA | Zangozako Ikastola | D | | | | | | |
| ZIZUR TXIKIA | Miravalles - El Redín | G | 73 | 84 | 63 | 78 | | |
| ZIZUR TXIKIA | San Fermin Ikastola | D | | | | | | |
| Guztira | | | 1917 | 2110 | 2246 | 2066 | 35 | 32 |

Ikastetxe pribatuetako LOGSE batxilergoak

2002-2003 ikasturtea

Matrikulen aurreikuspena

| HERRIA | IKASTETXEA | Ere. | NOZB | | GGZB | | BTI | |
|--------------|-------------------------|------|------|-----|------|-----|-----|-----|
| | | | 1.a | 2.a | 1.a | 2.a | 1.a | 2.a |
| BURLATA | Irabia | G | 19 | 17 | 23 | 24 | | |
| GARES | Sem. Padres Reparadores | G | | | | | | |
| IRUÑA | Calasanz | G | 29 | 26 | 14 | 25 | | |
| IRUÑA | Calasanz | A | 7 | 7 | 5 | 7 | | |
| IRUÑA | Cardenal Larraona | G | 27 | 45 | 21 | 22 | | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | G | | | 18 | | | |
| IRUÑA | El Redín | G | 17 | 10 | 8 | 10 | | |
| IRUÑA | Hijas de Jesús | G | 20 | 24 | 22 | 21 | | |
| IRUÑA | mª Inmaculada | G | | | | | | |
| IRUÑA | Nª Sra. del Huerto | G | | | | | | |
| IRUÑA | Sagrado Corazón | G | 30 | 44 | 30 | 35 | | |
| IRUÑA | Salesianos | G | | | | | 60 | |
| IRUÑA | San Cernin | G | 65 | 60 | 60 | 60 | | |
| IRUÑA | San Ignacio | G | 55 | 48 | 58 | 52 | | |
| IRUÑA | Santa María la Real | G | 60 | 50 | 26 | 40 | | |
| IRUÑA | Santa Teresa | G | 45 | 37 | 27 | 24 | | |
| IRUÑA | Santo Tomás | G | 22 | 23 | 16 | 18 | | |
| IRUÑA | Ursulinas | G | 74 | 58 | 18 | 29 | | |
| IRUÑA | Vedruna | G | 17 | 23 | 19 | 19 | | |
| LIZARRA | Nª Sra. del Puy | G | 52 | 40 | 27 | 35 | | |
| MUTILOABEITI | Luis Amigó | G | 20 | 14 | 17 | 14 | | |
| TUTERA | San Francisco Javier | G | | | | | | |
| ZIZUR TXIKIA | Miravalles | G | 24 | 20 | 9 | 15 | | |
| ZIZUR TXIKIA | San Fermín | D | | | | | | |
| | Oсотara, orokorra | | 583 | 546 | 418 | 450 | 60 | 0 |

Ikastetxe publiko eta pribatuetako lanbide heziketako zikloak

2002-2003 ikasturtea

Matrikulen aurreikuspena

| HERRIA | IKASTETXEA | IZENA | Maila | ERDI MAILAKO H.Z. | | | GOI MAILAKO H.Z. | | |
|--------|---------------|-------------------------------------|-------|-------------------|-----|------|------------------|-----|------|
| | | | | 1.a | 2.a | P.L. | 1.a | 2.a | P.L. |
| IRUÑA | Carlos III | Merkataritza | EHZ | 18 | | 11 | | | |
| IRUÑA | Carlos III | Administrazio-kudeaketa | EHZ | 20 | | 17 | | | |
| IRUÑA | Carlos III | Erizaintzako zainketa lagungarriak | EHZ | 21 | | 15 | | | |
| IRUÑA | Carlos III | Administrazioa eta finantzak | GHZ | | | | 25 | 27 | |
| IRUÑA | Carlos III | Haur hezkuntza. | GHZ | | | | 21 | 20 | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Administrazio-kudeaketa | EHZ | 54 | | 18 | | | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Merkataritza | EHZ | 26 | | 7 | | | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Nazioarteko merkataritza | GHZ | | | | 20 | 17 | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Informatika sistemen administrazioa | GHZ | | | | 25 | 16 | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Informatikako aplikazioak garatzea | GHZ | | | | 25 | 17 | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Administrazioa eta finantzak | GHZ | | | | 20 | 23 | |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Garraioaren kudeaketa | GHZ | | | | 44 | 30 | |

| HERRIA | IKASTETXEA | IZENA | Maila | ERDI MAILAKO H.Z. | | | GOI MAILAKO H.Z. | | |
|---------|---------------------------------------|--|-------|-------------------|-----|------|------------------|-----|------|
| | | | | 1.a | 2.a | P.L. | 1.a | 2.a | P.L. |
| IRUÑA | Cuatrovientos | Merkataritza-kudeaketa eta marketinga | GHZ | | | | 20 | | |
| IRUÑA | Formación Politécnica | Erizaintzako zainketa lagungarriak | EHZ | | | | | | |
| IRUÑA | Formación Politécnica | Haur hezkuntza. | GHZ | | | | | | |
| IRUÑA | Formación Politécnica | Gizarteratzea | GHZ | | | | | | |
| IRUÑA | Foro Europeo de Formación Empresarial | Administrazioa eta finantzak | GHZ | | | | | | |
| IRUÑA | Foro Europeo de Formación Empresarial | Idazkaritza | GHZ | | | | | | |
| IRUÑA | Foro Europeo de Formación Empresarial | Merkataritza-kudeaketa eta marketinga | GHZ | | | | | | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Farmazia. | EHZ | 26 | | | | | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Erizaintzako zainketa lagungarriak | EHZ | 53 | | | | | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Administrazio-kudeaketa | EHZ | 24 | | | | | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Administrazio kudeaketa (bi urtetan) | EHZ | 11 | 14 | | | | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Anatomia Patologikoa | GHZ | | | | 43 | 14 | |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Osasun dokumentazioa | GHZ | | | | 26 | | 13 |
| IRUÑA | M ^a Inmaculada | Garraioaren kudeaketa | GHZ | | | | 17 | 15 | |
| IRUÑA | Salesianos | Mekanizazioa | EHZ | 20 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Soldadura eta galdaragintza | EHZ | 11 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Ekipo eta instalazio elektroteknikoak | EHZ | 26 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Arotz-lanak eta altzariak egin eta instalatzea | EHZ | 20 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Arte grafikoetako aurreinprimaketa | EHZ | 20 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Inprimaketa | EHZ | 19 | | | | | |
| IRUÑA | Salesianos | Mekanizazio bidezko produkzioa | GHZ | | | | 37 | 21 | |
| IRUÑA | Salesianos | Proiektu mekanikoen garapena | GHZ | | | | 41 | 18 | |
| IRUÑA | Salesianos | Erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoak | GHZ | | | | 41 | 17 | |
| IRUÑA | Salesianos | Produktu elektronikoak garatzea | GHZ | | | | 36 | 16 | |
| IRUÑA | Salesianos | Produktio grafikoa | GHZ | | | | 29 | 18 | |
| Guztira | | | | 369 | 14 | 68 | 470 | 269 | 13 |

Galdera, irakaskuntzan euskara sartzeari buruzko 1988ko Foru Dekretua aldatzeko beste Foru Dekretu bat egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak irakaskuntzan euskara sartzeari buruzko 1988ko Foru Dekretua aldatzeko beste Foru Dekretu bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Irakaskuntzan euskara sartzeari buruzko 1988ko Foru Dekretua aldatzeko beste foru dekretu bat egiteari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeko 4.2 artikulua ezarri zuen Nafarroako Gobernuak, 2002/2003 ikasturtea bukatu baino

lehen, behar diren arauak emanen dituela hizkuntza ereduak ezarpen honen arabera moldatzeko. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Parlamentuaren agindu hori bete egingen du, bai arauak eskatzen denari dagokionez, bai legeak ezarritako epeari dagokionez ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernua egitekoa den espetxearentzako kokaleku egokiagoren bat bila dezan premiatzen duen erabakia, Osoko Bilkurak 2001eko urriaren 10ean onetsia, bete ote den. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne erantzuna.

Gogorarazi nahi dut, lehenbizi, talde sozialistak orain aipagai duen ebazpena onetsi zenean, bertan behera utzita zegoela espetxe berria Muruzabalgo lurretan ezartzeko proiektua, oposizio sozialaren ondorioz eta proiektua aurrera eramateko laguntza politiko nahikoa ez egoteagatik.

Ordutik hona espetxea ezartzeko lur egokiak topatzeko lanean jarraitu dugu, hasierako lurralde-metodologia bera erabiliz, Espetxe Zuzendaritza Nagusiak ezarritako onarritako baldintzak bete eta Nafarroako espetxea ezartzeko behar diren alderdi guztiak dauzkan leku bat aurkitzeko. Une hauetan gutxienez ere hiru lur daude eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztenak, Iruñetik 30 bat kilometroko erradioan.

Hala eta guztiz ere, Muruzabalgo lurak hautatzeko prozesura itzuliz, esan beharra dago prozesu guztiz garbi eta teknikoki akatsik gabea izan zela. Gogoratuko duzue, ordea, horrek ekarri zuen oposizio soziala, sekula arrazoitu gabea, zeinak iradoki zezakeen Nafarroako Parlamentuaren gehiengo ez zela kokapen horren aldekoa. Hori guztia dela eta, proposamena bertan behera uztea erabaki zen.

Horregatik, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak 2002ko ekainaren 26an, asteazkenez, publikoki adierazi bezala, Nafarroako espetxearen kokapena, zeinarentzat, berriz diot, gutxienez ere hiru kokapen aztertzen ari baitira, hurrengo legegintzaldiaren hasieran, 2003ko bigarren seihilekoan, erabaki eta publiko egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernua Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan premiatzen duen erabakia, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak 2002ko martxoaren 1ean onetsia, bete ote den jakiteko. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Justizia Zuzendaritza Nagusiaren jarduera, logikoa den bezala, urtebetetik hona garatzen jarraitu da; izan ere, data hartan Administrazio honetaz kanpoko adierazpen batzuk gertatu ziren, eta haiexen ondorioz hartu zuen Parlamentuak orain bete ote den galdetzen den erabakia.

Epe horretan, Nafarroako Justizia Administrazioari laguntzeko zenbait jarduketa adosten jarraitu da, inork ahaztu behar ez lukeen lehentasunezko helmuga batekin: erraztea, egindako leku-aldatzeek bidera dezaketen guztian, Justizia-

ren zerbitzu publikoa ahal den modu eraginkorrean ematea Nafarroako biztanleei. Zehazki, ondokoak izan dira jarduketarik garrantzitsuenak: makineria informatiko, ofimatiko eta teknikoak ordeztu bukatzeko pronto egotea, Justizia Administrazioan esku hartzen duten guztientzat funtzionamendua zuzenagoa izan dadin, eta sektore publikoan gaur egun ezinbestekoak diren tresnak erabiltzea –Office, posta elektronikoa, datu base juridikoetarako sarbide elektronikoa, bideo-konferentzia eta abar– (1.000.000 euro); doako laguntza juridikorako dirulaguntzen kudeaketa integrala eta kontrola eramateko programa informatiko berri bat prestatu eta ezartzea (120.000 euro); ordena jurisdikzional guztien kudeaketa prozesala egiteko programa informatiko bat kontratatu eta abian jartzea (urte anitzekoa, 2.705.000 euro); Agoizko epaitegiaren eraikin berria kontratatu eta egitea, honezkerok bukatu dena (900.000 euro); Iruñeko Justizia Jaurregiko obrak hastea –lehen fasea heldu den urtean bukatuko da– (2.400.000 euro); eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioekin 2002. urterako jarduketa plan berri bat sinatzea.

Ekintza horietarako guztietarako elkarrizketak izan dira eta adostasunetara iritsi da Justizia Administrazioaren gobernu-organoeekin, lurralde eta nazio mailan, eta berdin jokatu da etorkizunean lan jurisdikzionalaren antolamenduaren arloan hartu beharreko neurriekin, zeinak Nafarroako Gobernuak, behar diren bitartekoeekin, laguntzen jarraituko baititu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Oskiako harrobien zabalpena onura publikoa dela deklaratzeko espedienteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Oskiako harrobien zabalpena onura publikoa dela deklaratzeko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak Oskiako harrobiak zabaltzeari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. 2002-01-18an Industri Segurtasuneko Zerbitzuari C) atala urtarrilaren 27ko 107/1995 Errege Dekretuaren arabera birsailkatzea eskatu zitzaion.

2002ko ekainaren 3an, eskari hori tramitera onartu eta jendaurreko informazio epea zabaldu zen Itzako, Olloibarreko eta Arakil ibarreko udaletan, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialera igorri zen, argitara zedin.

2. Meatzaritzaren Araubideari buruz indarra duen Erregelamendu Orokorreko 86.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ukitutako udalei ustiategi-ko C) atalaren birsailkapenari buruzko iragarkia

igorri zitzaion, hamabost egunez iragarkien oholean jar zezaten; egun horien buruan, iragarki hori zerbitzu honi itzuli behar zitzaion, behar den dilijentziarekin.

Interesdunak direnean, espedientean aurkeztu ahal izanen dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epean.

Epe hori iraganik, Industri Segurtasunerako Zerbitzuak espedientea aztertu eta aurkeztutako datuak egiaztatzeko bertaratu baino lehen, ustiategiaren eta inguruko edo hurbileko instalazioen baldintzak zehazki ezagutzen ahaleginduko da, betiere eskura dauzkan aurrekari, datu eta alegazio guztiak aztertuz, horren barne dela Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren iritzia; horren ondorioz, eskaria eman nahiz ukatu egingen da.

3. Toki entitateen iritzia behin betikoak izanen dira formulatzen dituzten alegazioen oinarriak behin betikoak diren neurrian; hori guztia behar bezala baloratu beharko dute administrazio organo eskudunak edo organo jurisdikzionalak, kasu bada.

4. Departamentu honek, une hauetan, ez du aurreikusi inongo azterlanik egitea horrelako jarduerak kokatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Galdera, unibertsitatera sartzeko frogetarako batxilergoko ikasgaietan izendatu diren koordinatzaileei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak unibertsitatera sartzeko frogetarako batxilergoko ikasgaietan izendatu diren koordinatzaileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Unibertsitatera sartzeko frogetarako batxilergoko ikasgaietan izendatu diren koordinatzaileei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Koordinatzaileak 20 dira guztira, bat Batxilergoko 2. mailan irakasten den ikasgai bakoitzeko, nahiz eta batzuek arlo bereko ikasgai baino gehiago koordinatzen dituzten.

Hona koordinatzen dituzten ikasgaiak:

Marrazketa Teknikoa, Geografia, Ekonomia eta Enpresen Antolamendua, Gaztelania eta Literatura, Euskal Hizkuntza eta Literatura, Frantsesa, Ingelesa, Historia, Fisika, Matematika, Gizarte Zientziei aplikaturiko Matematika, Kimika, Biologia, Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak, Marrazketa Artistikoa, Irudia, Adierazpen Grafiko-Plastikoetarako Teknikak, Bolumena, Diseinuaren Oinarriak, Latina, Greziera, Filosofiaren Historia, Artearen Historia, Teknologia Industrial, Elektroteknia eta Mekanika.

2. Unibertsitatera sartzeko frogarako batxilergoko ikasgaien koordinatzaile lanak ez dakar berekin lantokian ordu murrizketarik izatea, ez eta irakaskuntza orduren edo ikastetxean egon beharreko orduen murrizketa ere; hori dela eta, koordinatzaileek, ikastetxeko beste irakasle guztiek bezala, beren ordu guztiak bete behar dituzte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña.

Galdera, ikastetxe publikoetan kontratatutako irakasle kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ikastetxe publikoetan kontratatutako irakasle kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Foru Komunitatean kontraturiko irakasleei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Ondoko taulan jaso ditugu ikastetxe publikoetan 2002ko ekainaren 30ean kontraturik zeuden irakasleen kopurua, haien kategoriak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin sinaturiko kontratu mota eta kategoria bakoitzaren urteko ordain-sari gordina:

| KATEGORIA | ALDI BATERAKO KONTRATUEN KOPURUA | | ORDEZKAPEN KONTRATUEN KOPURUA | | URTEKO ORDAINSARI GORDINA (1) |
|---|----------------------------------|-------------------|-------------------------------|-------------------|-------------------------------|
| | Lanaldi osoa | Lanaldi partziala | Lanaldi osoa | Lanaldi partziala | |
| BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA | 361 | 44 | 94 | 10 | 28.203,28 |
| ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO IRAKASLEA | 22 | 1 | 1 | 0 | 28.203,28 |
| HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEA | 15 | 2 | 1 | 1 | 28.203,28 |
| MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOEN IRAKASLEA | 30 | 17 | 1 | 0 | 28.203,28 |
| L.H.ko IRAKASLE TEKNIKOA | 129 | 10 | 6 | 0 | 24.733,52 |
| ARTE TAILERRETAKO MAISUA | 5 | 1 | 0 | 1 | 24.733,52 |
| MAISUA | 477 | 43 | 140 | 12 | 23.817,50 |
| MAISUA (DBH) | 62 | 3 | 41 | 2 | 24.317,02 |

(1): lanaldi osoko kontratu baten ordainsari gordina adierazi dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren gastuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak aurtan eginiko gastuari buruz.

Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

440000 43000 4816 455100 – Hitzarmena Euskaltzaindiarekin 216.850,71 euro

2002ko ekainaren 27an izenpetu zen hitzarmen berria Euskaltzaindiarekin.

440000 43000 4810 422400 – Hitzarmenak Nafarroako unibertsitateekin eta beste entitate zientifikoekin.

UZEIrekiko hitzarmena 16.828,34 euro

Urtero berri beharreko hitzarmena da, eta horren bidez aholku ematen zaio Nafarroako Gobernuari terminologiaren arloan, kontsultarako behar diren tresnak emanaz eta aldizka gaurkutzuz.

442000 43200 4600 455100 – Udal eta kon-
tzejuentzako laguntzen programa euskararen
arloan.

| | |
|--|-----------------------|
| Normalizazio programa | |
| 2001 01-02 ikasturtea | 96.161,57 euro |
| Normalizaziorako programeetarako akordioa, 2002: | 644.689,98 euro |
| Akordioan ez dauden udalentsako kultur jardueretarako deialdia: | 6.010,10 euro |
| | <hr/> 746.861,65 euro |

442000 43200 4810 455102 – Kultur progra-
mak eta ekimenak.

| | |
|---|-----------------------|
| Mozorro berri antzerki kanpaina: | 69.200,00 euro |
| Marco Polori buruzko erakusketa ibiltaria: | 18.030,00 euro |
| Antzerkiari buruzko erakusketa ibiltaria: | 12.020,00 euro |
| Ze berri aldizkaria | 30.050,61 euro |
| Zoko zinea zine kanpaina: | 9.015,18 euro |
| Kultur jarduerak | 60.101,00 euro |
| Zinema euskaraz Iruñean: | 3.485,87 euro |
| | <hr/> 201.902,66 euro |

442000 43200 4811 455100 – Ikastoletarako
dirulaguntza berezia.

2002ko urtarrila-abuztua: 545.179,80 euro

442000 43200 2269 455100 – Erakusketetan
parte hartzea.

Berlingo Expolinguan parte hartzea: 4.0665,38
euro

442000 43200 2400 455100 – Soziolinguistika-
ko argitalpenak.

| | |
|-----------------------------------|---------------|
| Uraren langideak: | 1.300,00 euro |
| Sibilants Basque Dialect: | 3.855,00 euro |
| 2001eko inkesta soziolinguistikoa | 4.882,92 euro |

| | |
|----------------------------------|----------------------|
| Hizkuntza arloko legeria: | 3.042,42 euro |
| Diseinuaren fakturen ordainketa: | 431,46 euro |
| Diseinuaren fakturen ordainketa: | 154,81 euro |
| Diseinuaren fakturen ordainketa: | 1.248,54 euro |
| Diseinuaren fakturen ordainketa: | 43,75 euro |
| Diseinuaren fakturen ordainketa: | 423,40 euro |
| | <hr/> 15.382,30 euro |

442000 43200 2400 455102 – Azterlanak eta
proiektuak egitea.

| | |
|---|----------------------|
| 2002ko euskarari buruzko inkesta soziolinguistikoa | 36.060,70 euro |
| Txosten osagarriaren faktura: | 1.502,52 euro |
| | <hr/> 37.563,22 euro |

442000 43200 6080 455100 – Fonotekaren
proiektua.

| | |
|---|----------------------|
| XARELAN. kontratua Xarelanekin, mantentze-lanak eta lan berriak: | 34.258,00 euro |
| Beka Datu basearen garbiketa: | 3.846,48 euro |
| | <hr/> 38.104,48 euro |

442000 43200 6092 455100 – Nafarroako
Toponimia.

| | |
|--|----------------------|
| TRACASA. Toponimia historikoa: | 12.000,00 euro |
| XARELAN. Toponimiaren arloko aholkularitza: | 6.000,00 euro |
| | <hr/> 18.000,00 euro |

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-
ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-
goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús
Laguna Peña

Galdera, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Foru legea erregelamendutan garatzeko lanei bi jomuga izan dituzte, nagusiki:

a) Foru legean aurreikusitako kontseilu aholku-emailea sortu eta "saltoki handien merkataritza eredia" delakoa prestatzea. Lan horiek ia buruturik daude eta haien gaineko ardurak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarena izan da; beraz, berak du informazio zehatza.

b) Baimenatarako administrazio prozeduraren garapena. Gai honetan, lege testuaren ageriko akats tekniko administratiboek interpretazio koherentea egin ahal izatea oztopatu dute:

-Hasierako proiektuaren prozedurarekin bat ez datozen prozedura pausuak gehitzeak bikoizketak ekarri zituen eta, horren ondorioz beharrezkoa izan zen interpretazio integratzailea egitea, gai horrekin zerikusi handiena duten departamentuetan aztertu aurretik.

-Nafarroako Gobernuaren aholkularitza juridikoak, 2001eko irailaren 10ean emaniko txostenean, 23.3 artikulua hirugarren lerrokada konstituzioaren kontrakoa zela iritzi zion.

-Garatzea behar zuten zenbait alderdi ez ziren aipatzen lege testuan, esaterako azalera osoan eraginik izanen ez zuten edo oso eragin txikia izanen duten aldaketak (adibidez, biltegiarako eremu baten erabilera aldatzea salmenten eremuan sartzeko). Ez da logikoa, noski, lurralde eta hirigintza arloko antolamenduan eraginik ez duten aldaketa mota horiek udalez gaindiko plan sektoriala edo udal planeamenduko aldaketa behar izatea, eta foru legea hitzez hitz ulertzeak horixe ekarriko luke.

Lege testutik heldu den zailtasun hori eta beste batzuk luzatu egin dituzte erregelamendu bidezko garapena egiteko lanak. Gure asmoa da bermatzea beharrezkoak diren txosten eta irizpen guztiekin egitea garapen hori, lege hutsuneak eta zehaztasun gabeziak gainditzeko modurik ahal den egokienean eta arrisku juridikoa ahalik eta txikiena izanik. Lanaren funtsekoena (ezarritako prozedura modurik ahal den koherente eta koordinatuean interpretatzea) egina dago. Beraz, gaiarekin zerikusi handiena duten departamentuek adostu duten interpretazioak bide emanen du foru lege horren helburuen aplikazio praktikoa aurkeztutako eskabide bakoitzean, behin merkataritza eredia ofizialki onetsirik.

Nolanahi ere, interpretazio horren erregelamenduzko formalizazioarako beharrezkoa zen alde aurretik Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailea eratzea, gaiarekin zerikusia zuten guztien iritziak alderatzeko eta arautzea praktikan eragin-korra izateko.

2. Foru legeak indarra hartu zuenetik hona "Eroski" merkataritza gunea handitzeko proiektu bat aurkeztu da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan. Ez dugu beste eskabideren berri, baina legeria berriari buruzko kontsultei eta informazio eskeei erantzuna eman zaie,

3. Aipatutako espedientea tramitazioan dago gaur egun, foru legean aurreikusitako epeetan.

4. Saltoki handiek sortutako dirusarreraren banaketaren inguruko aurreikuspenen garapena, toki tributuen arloan, Toki Administrazioaren Departamentuaren eskumena da, eta eginik dauzka zenbait azterlan eta azterketak gai horri buruz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Galdera, Los Arcosen eskualderako industrialdle bat jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Los Arcosen eskualderako industrialdle bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du eskualdeko industrialdea Los Arcosen jartzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Beste industrialde batzuei buruz bestelakoetan esan izan dugunez, udalek kudeaketa-eredu mankomunatua ezartzeko aukera eta eredu horren mugak erabakitzea udalen eta ez beste inoren esku dago, lor ditzaketen akordioen mende alegia, eta horrelako akordio bat, lortuz gero, hitzarmen bat eginez gauzatuko litzateke. Orain arte inongo ekimenik ez du aurrera egin eskualdeko industrialde bat modu mankomunatuan kudeatzeko, nahiz eta lehenengo saio benetakoa 1980an egin; ordutik hona, Nafarroa osoan, ugari izan dira urbanizatu diren eta eraikitzen ari diren eskualdeko industrialdeak.

Edonola ere, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz esan izan du prest dagoela bere zerbitzuak eskaintzeko eta eredu mankomunatua garatzen laguntzeko, baina horretarako ezinbestekoa da zerikusia duten alde guztiek hori nahi izatea.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

Galdera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legeko 8. artikulua aplikazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legeko 8. artikulua aplikazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legearen arabera banakako itunetan familiek ordaindu behar dituzten zenbatekoen aldaketen aplikazioari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritako zenbatekoak eta martxoaren 12ko 66/2001 Foru Dekretuan (2001. urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei –geroago 2002ko ekitaldirako luzatuak– buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako hezkuntza-itunen modulu ekonomikoak eta 35. artikuluko laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako kuotak aldatzen dituena), 2. artikuluan, ezarritako kuotak, kopuru berekoak dira. Beraz, lege horretako 8. artikulua aplikatuko da 66/2001 Dekretuko 2. artikulua aplikatu den modu berean; hau da, ikastetxeari ordainduko zaio moduluak bestelako gastu gisa ezarritako zenbatekoaren eta ikastetxeak ikasleei kobratuak diren zenbatekoen arteko aldea.

2. “Bestelako gastuak” eta, hala bide denean, langile osagarrientzako moduluaren osagaiak, II.

eranskinean sartuta dagoenak, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du ondorio, 8.1 artikuluan ezartzen denez.

3. 2002ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean ikastetxeek kobratu dituzten kopuruak martxoaren 12ko 66/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako kuoten ondoriozkoak direnez gero, eta uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritako kuotak berberak direnez, ikastetxeek kobratu beharko zituzten kopuruak eta egiazki kobratu dituztenak ere berberak dira; hori dela-eta, 26/2002 Legeko 8.5 artikuluko azken lerroaldean ezarritako ordainketak ez du eraginik jasanen.

4. Administrazioak “bestelako gastuak” kontzeptua finantzatzeko ordaindutako kopuruaren kontrola Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuko 40. artikulua arautzen du. Hauxe dio: “Ikastetxe Itunduaren beste gastu batzuetarako Administrazioak ordaindutako zenbatekoa arrazoitu egiten da, ikasturtea bukatzerakoan, ikastetxearen titularrak Eskola Kontseiluak kontuak onesteko hartu zuen erabakiaren ziurtagiria aurkeztuta”. Kontrol hori egiten da Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuetatik. Dena den, “bestelako gastuak” kontzeptu horrengatik ikastetxeek jasotako kopuru guztien kontrol finantzarioa dekretu horretako 41. artikulua arautzen du, zeinak honela baitio: “Ikastetxe Itunduak indarra duten xedapenek Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailetzari eta, halakorik balitz, Ikuskaritza Tekniko eta Zerbitzuak ikuskatzeko Zerbitzuari ematen dioten finantza kontrolaren menpe egonen dira.”

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua benetan dago kezkatuta behar bezalako prestakuntza duten turismoko profesioanalarak behar baitira sektorearen beharrei aurre egiteko.

2.- Horrela, NUPekin lankidetzan gauzatu dugu Turismoko graduondoko master bat –aurten goa bigarren urtea izanen da– eta gainera sektore horretako profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako plana egiten ari gara.

3.- Kontuan izan behar da Turismo Eskola pribatua dela, eta, beraz, departamentuaren ekin-

tzak turismoko prestakuntza unibertsitate-esparruan sartzera daude bideratuta –halaxe gertatu da autonomia erkidego gehienetan–.

4.- Hitzarmen bat bada Turismo Eskolako ikasleek praktikak egin ditzaten Turismo Zerbitzuan; horren bidez, zortzi ikasle egin zituzten praktikak 2001. urtean eta beste horrenbeste ari dira aurtien ere.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak 2002ko ekitaldirako aurkeztutako aurrekontu orokorretako proiektuan bazen kontusail bat 100.814 eurokoa Nafarroako Turismo Ikasketen Institutuarentzat, harekin hitzarmen berria sinatzeko hain zuzen. Aurrekontuen proiektua onetsi ez zenez eta 2001eko aurrekontuak luzatu egin zirenez, kontusail hori 22.682 eurotan gelditu zen; diru kopuru hori, ohikoa denez, lau hilero transferitu egiten da Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien”. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Ikertzaileentzako laguntzetarako deialdiak eta Nafarroako Plan Teknologikoaren babesean gauzaturiko gainerako jarduketak I+G+B plan nazionalaren eta Europako Ikerkuntza Programaren esparruaren barruan daude. Alde horretatik, kontuan hartu beharrekoa da Hezkuntza eta Unibertsitateetako Estatu Idazkaritzako 2002-2003 ikasturterako 2002ko ekainaren 18an emaniko ebazpenaren bidez onetsitako beka-lankidetzarako deialdia.

Nolanahi ere, Zientzia eta Teknologia Ministerioak, ikerkuntzako bekadunen egoera erregelamenduz arautzeko premiaz jabeturik, prestaturik dauka errege dekretu baten zirriborroa, Ikerkuntzako bekadunaren estatutua -autonomia erkidegoekin batera aztertzen ari dena- onetsiko lukeena. Estatutu hori onetsi ondotik, autonomia erkidegoek egokitzat jotzen dituzten alderdiak garatu ahal izanzen dituzte zeinek bere eskumenen esparruan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengo eskuratzeko”. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

“Sociedad Estatal de Participaciones Industriales” edo “SEPI” delakoarekin ofizialak izan ez

diren elkarrizketez aparte, egia esan ebazpena betetzea ezinezkoa da, ez baitago kontusailik Nafarroako aurrekontu orokorretan egun Estatua-rena den kapitalaren balizko erosketa finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Cristóbal García jaunak galdera egin du Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak”. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuaren Lehen Idazkaritzaren egiaztagiriaren arabera, Nafarroako Parlamentuak, 2001eko irailaren 11n eginiko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, berriz ere, 2001-2004rako etxebizitza plana igor dezan Nafarroako Parlamentura, honek bere iritzia eman dezan, eta Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitzaren arloan daukagun arazo larriari aurre egiteko plan horrek balio dezan ezinbestekoak diren ekarpenak erantsi ahal izateko”

Nafarroako Gobernuak, erabaki hori betetzeko, 2002ko martxoaren 11n igorri zuen 2001-2004rako etxebizitza plana, horren osagarri diren zenbait neurri, Nafarroako Demokratikoen Elkargu-nea Taldearekin alde aurretik adostutakoak, biltzen dituen eranskin batekin batera.

Plan horri Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 197. artikuluan aurreikusitako prozedura ezarri zitzaion. Horren ondorioz, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsi zuen 2002ko ekainaren 26an eginiko bilkuran.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Parlamentuak gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruz onetsi zuen erabakia Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eskumenetatik haratago doa neurri handi batean. Eskumen horiei dagokienez, departamentua lanean ari da, hiru jarduketa ildori jarraikiz: ikastetxeetako irakasleentzako orientabide didaktiko eta pedagogikoak, irakasleen prestakuntza eta material didaktikoak prestatu eta argitaratzea.

Espezialitate batzuetako irakasle lantalde bat, departamentuko teknikariek koordinaturik, irakasleentzako gida bat prestatzen ari da bigarren hezkuntzako heziketa afektiboa eta sexualaren tratamendurako. Talde hori bera ari da lanean egun familientzako orientabide gida bat argitaratzeko. Bestalde, beharrezkoa da irakasleek prestakuntza egokia jasotzea heziketa afektibo sexualaren curriculumak irakasteko. Prestakuntza hori, irakasleen prestakuntzarako planean zeharkako arloeta-

rako taxaturikoaren barnean dagoena, zabala da: adimen emozionalari edo bioetikari buruzko ikastaroretatik hasita, irakasleei zeharkakotasuna curriculumean txertaturik garatzeko aholkuak eman nahi dizkien “Zeharkakotasunaren garapena ikastetxeetan” mintegira, Valentziako Unibertsitateko irakasle Valentín Gavidia irakasleak ematen duena alegia.

Material didaktikoen arloan, berriz, “Osasunaren sustapenerako gida eskolan” prestatzen ari da argitara emateko, Osasun Departamentuarekin batera; eta bi “Heziketa afektibo sexualerako orientabiderako gida”, bata irakasleentzat eta bestea familientzat.

Bestetik, Osasun Departamentuaren eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko batzorde tekniko bat eratu da osasunaren tratamendua bultzatzeko ikastetxeetan, Europako Osasunaren aldeko Eskolen Sarea bultzatuz gure erkidegoan Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin koordinaturik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Osasun kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Tokoginekologia eta famili plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezartzen duen irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuak espezialitate horien sakoneko berrantolaketa ekarri zuen, Nafarroako emakumearen laguntza integrala hobetzeko xedearekin.

Foru dekretu horren izpirituetan bi helburu ditu:
1) Ginekologoa hautatuz, laguntza pertsonaliza-

tzea, eta emakumezko erabiltzaileek eskurago izatea laguntza jarraitua, ospitalekoa barne. 2) Laguntza espezializatuaren maila edo bigarren maila ezartzea laguntzaren piramidean -oinarrian lehen mailako laguntza dago eta gailurrean ospitaleko laguntza edo hirugarren maila-, eta hiru mailen arteko komunikazioa arina eta eraginkorra izan dadin behar dadin lotuneak eta protokoloak taxutzea, Nafarroako emakumeen nahiz haiei laguntza ematen aritzen diren profesionalen onerako.

Iruñeko Barrutiko Emakumearen Laguntzarako Atala, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zuzendaritzaren menpean dagoena, zazpi zentro hauek osatzen dute: Zabalgunea-Alde zaharra, Arrosadia-Azpilagaña, Ermitagaña-Barañain, Tafalla, Burlata, Iturrama-Donibane eta Txantrea. Horri landa eremuko beste lau azpiunitate gehitu behar zaizkio: Etxarri-Aranatz, Zangoza, Barañain eta Elizondo. Atalaren ardura atalburu batena da eta zentro bakoitzarena koordinatzaile batena. Hala ere, barrutian erizaintzako buru bat dago.

Emakumearen Laguntzarako Zentro bakoitzak diziplina anitzeko giza taldea izanen du: administrariak, hezitzaileak, erizainak, emaginak eta ginekologoak. Haietako bakoitzak zeregin zehatz eta funtzionala du emakumeari, bikoteari eta gazteei ematen zaien laguntza ahalik eta osatuena eta pertsonalizatuena izan dadin. Txantreako (Andraize) eta Iturrama-Donibaneko zentroak, heziketaren alorrean duten tradizioa dela-eta, barruti osoak kontuan hartzeak dira sexu-heziketaren, gazteentzako programaren eta prostituzioaren gaietan.

259/1997 Foru Dekretuak honako osasun prestazio hauetarako eskubidea ezagutzen die Nafarroan bizi diren eta osasun laguntza publikoaren sisteman sarturik dauden emakumeei:

I. Eritasun tokoginekologikoetarako eta hilekoaren zikloko eta klimaterioko arazoetarako osasun laguntza.

II. Haurdunaldiaren diagnostikoa, laguntza goiztiarra eta osasun jarraipena, bai eta amarendako zein fetuarendako arrisku faktoreen zainketa ere, haurdunaldiari buruzko informazioak erditzearen une eta tokiraino jarraipena izanen duela bermatuz.

III. Amatasun agiri pertsonal bat izateko aukera, haurdunaldian aldizka egiten diren azterketak azalduko dituena.

IV. Ama izateko heziketa, erditzeari buruzko prestakuntza eta analgoanestesia tekniken bidez-

ko erditzeari buruzko argibideak horren gainean hautaketa arduratsua egiteko.

V. Erditze uneko laguntza ospitale batean, emakumeak bere erditzean protagonista gisa parte hartzeko erraztasunak ematea eta erditze ez-distozikoan emakumeak bere konfidantzako pertsona baten laguntza izatea.

VI. Emakumeak, bere adostasuna, informazioa jaso ondoren emateko bermea izatea prozesu klinikoetan eta asistentziaren ikuspuntutik behar-beharrezkoak ez diren eta emakumearen edo haurraren osasunari kalte egin gabe saihestu daitezkeen interbentzioetan.

VII. Erditze ondoan osasun laguntza etxean jasotzea.

VIII. Antisorgailu bat hautatzeko argibideak. Metodo ezberdinen azalpena, aplikazioa, kontrola eta jarraipena, basektomiak eta tronpen loturak barne.

IX. Banakako eta taldeko sexu hezkuntza.

X. Argibideak, aholkularitza, laguntza psiko-sozio-emozionala eta dohaintasuna legearen arabera ezarritako egoera eta baldintzak betetzen dituzten Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaldi kasuetan, prozesu guztian ahalik eta arintasun eta konfidentzialtasun handiena bermatuz.

XI. Antzutasunaren diagnostikoa eta tratamendua.

XII. Kontseilu genetikoaren arrisku taldeetan.

XII. Jaio aurreko diagnostikoa arrisku taldeetan.

Eskubide horiei erantzuteko, emakumearen laguntzarako zentroek honako osasun esparru hauetan ematen dituzte zerbitzuak:

I. Obstetria.

II. Ginekologia organiko eta funtzionala.

III. Famili plangintza eta sexu hezkuntza.

IV. Hezkuntza eta laguntzako programa berariazkoak: gazteentzako programa, prostituzioaren aritzen diren emakumeentzako laguntza, basektomiak, sexu hezkuntza eta familia plangintza, Osasun Departamentuarekin lankidetzan aritzea nerabeentzako programan -neurriak aurretik, onurak ondotik-, menopausia eta amarentzako heziketa. Hezkuntzako programa berariazkoetan, funtsezkoa da hezitzaileen, erizainen, psikologoaren eta emaginen papera.

V. Kirurgiako jarduerak: Bideko Ama Birjina Ospitalean egiten dira eta prozesuaren jarraipena zentroetan.

VI. Ospitalekoak ez diren larrialdiak, ohiko funtzionamenduaren orduetan.

VII. Osasunaren arloko hezkuntza, populazioarena oro har.

Beste lan-ildo garrantzitsu bat da oinarrizko osasun laguntzarekiko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ginekologia zerbitzuarekiko lotura hobetzen laguntzea, ginekologia eta obstetriziako hiru osasun mailak argi eta funtzionalki ezartzeko helburuarekin; hiru maila horiek antolatuz daude populazioarentzako laguntzari begira eraginkorrak izateko -espresuki zehazten dira horien eginkizunak eta edukiak, bai eta jarduketako protokoloak ere- eta mailen arteko hartu-emanak areagotzeko.

Azkenik, ataleko profesionalen prestakuntza iraunkorra eta irakaskuntza aipatzen du: aldizkako saio klinikoak, biltzar eta prestakuntza ikastaroetara joatea, emakumearentzako laguntza zentroetako arlo eta diziplinetan sortzen joanen diren ezagutzak eta teknikak gaurkotzeko xedearekin. Iruñeko Barrutiko Emakumearentzako Laguntza Atala prest egonen da beti elkarrizketarako eta lankidetzarako Nafarroako populazioari ematen zaion laguntza hobetzeko ahaleginean.

Premia duten eta legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten emakumeei zerbitzua ematen zaie gure erkidegotik kanpoko zentroetara bidaliz. Gutxi gorabehera, 50 kasu urtean, ofizialki deklaraturakoak eta Osasunbideak tramitatuak.

Emakumearentzako Laguntza zentro guztietan lantzen da sexu hezkuntza eta sexu bidez transmititutako eritasunen prebentzioa, gazteengan nola helduengan. Lan horretan, batez ere, hezitzaileak aritzen dira, baina gainerako estamentuak

ere: sendagileak, emaginak, erizainak eta psiko-sexologoak.

Gai hauetako hezkuntzako talde-lanetarako lankidetzan aritzen gara guraso elkarrekin eta ikastetxeekin. Gazteriaren Etxearekin "Gustu handiz" programan.

Gazteentzako programa batez ere Txantreako zentroan gauzatzen da (Andraize), baina horren zati bat Iturraman egiten da oraindik ere (zentroa bera da Txantreakoaren erritmoan lan egiterik ez duena lan pilaketa dela-eta), eta zentro guztiek laguntzen dute zeinek bere esparruan.

Osasun Publikoaren Institutuarekin elkarlanean, urriaren 21ean hasiko da ikastaro bat, gai hauen inguruan: sexualitatea, GIBa, sexu bidezko transmisioeko eritasunak, nahi gabeko haurdunaldien prebentzioa, osasun arloko langileak prestatzeko gai horretan. Guzti horren asmoa da hezkuntza lanetarako ahalik eta profesional prestatu gehien edukitzea, lan horiek hezitzaileek ez ezik beste langileek ere bete ditzaten. Gainera, Osasunbideak hezitzaileen oposizioetarako ezarritako irizpideak Osasun arloko profila eskatzen du, B mailakoa.

Era berean, parte hartzen dugu, Hezkuntza Departamentuarekin batera, Nafarroan osasun eskolak sortzen (Europako Kontseiluaren Araudia), osasun eskolen sarean sartzeko hala nahi duten eta eskatutako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeak. Sexuaren eta ugalketaren hezkuntzan parte hartuko dugu, lehen eta bigarren hezkuntzan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 21ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honi buruz: Nafarroako Gobernua ikastetxeetarako bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzko plan bat egin dezan premiatzea. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Ikastetxeetako bizikidetasuna irakasleen, hezkuntza arloko agintarien eta, oro har, gizartearen kezkarik behinenetakoa da. Gure gizarteko egiturak aldakuntza-prozesu oso azkarrak pairatzen ari dira, eta horien ondorioz nabarmen aldatu dira sozializazio-esparru eta –prozesu tradizionalak. Ez da ahaztu behar, bestalde, bake eta elkartasunezko bizikidetasuna sendotzeko jarrera eta ohiturak sustatzea ez dela soilik ikastetxeen eginkizuna. Hala ere, “bake eta bizikidetasunerako heztea” da hezkuntza-sistema orok lehentasun gisa izan behar duena, eta Nafarroako hezkuntza-sistemak halakotzat jo izan du tradizionalak.

Hezkuntza-sistema oso esparru egokia da haur eta gazteek euren lehenbiziko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko, bai eta euren garapen pertsonal eta soziala gauzatuko duten jarrera eta ohiturak ere. Horregatik, Irakasleak Prestatzeko

Planeko jardueren artean, bizikidetasun baketsurako egokienak diren jarreretan eraginik handiena daukatenei bultzada eman zaie: “Ikasgelako gatazkak ebaztea” gaiari buruzko prestakuntza-ikastaroak, orientatzaileei zuzenduak; “Ez diskriminatzeko heztea: immigrazioa eta kulturartekotasuna” izeneko moduluak; “kultura anitzeko gizarte batean bizitzen ikastea” ikastaroa; “Kulturarteko eskola” ikastaroa; “Kultura anitzeko gizarte batean bizitzen ikastea” mintegia; eta “Kulturen arteko bizikidetasunerako hezkuntza” ikastaroa.

Irakasleak prestatzeko langintza honen esparruan ere, “Donapea” eta “Ibaialde” Lanbide Heziketako institutueta irakasleek osaturiko lan talde bat eratu zen, ikasgelako gatazkak ebazteko curriculum bat ezartzeko.

Bestalde, Nafarroako Emakumearen Institutuarekin lankidetzan, jarraian zerrendatzen diren ikastetxeetan generoko indarkeriaren aurkako “Relaciona” proiektua gauzatu da: Iruñeko Eskolapioak Ikastetxea, Lizarrako “Tierra Estella” Bigarren Hezkuntzako Institutua, Iruñeko “Julio Caro Baroja” Bigarren Hezkuntzako Institutua; Lodosa-ko “Pablo Sarasate” Bigarren Hezkuntzako Institutua eta Barañaingo “Barañain” Bigarren Hezkuntzako Institutua.

Hirugarren urtez jarraian “Elkarrekin bizitzen ikastea” proiektua gauzatu da Aragoi ibaiaren ibarreko eta inguruetako ikastetxe batzuetan. Proiektu horren filosofia da ikastetxea eraldatzea, ikasteko ez ezik bizikidetasun zibilizatua gauzatzeko esparru bat ere izan dadin. Horrek behartzen du zenbait irizpide eta prozedura ezartzera, aniztasun kulturalarekiko arretari eta bizikidetasun integratzaileerako giro bat sustatzeari buruzkoak, hezkuntza erkidegoko kide eta sektore guztien eta, bereziki, irakasleen eta familien ekarpena sustatzeko eta motibatuzeko. “Elkarrekin bizitzen ikastea” programak xede du genero-diskriminazioa, ikasle behartsuak baztertzeko jarrerak, norgehiagokan oinarrituriko metodologiak eta abar ezabatzeko apustua eginen duen eskola bat lortzea. Proiektu horretan parte hartu duten ikastetxeak dira Santakara, Figarol, Arrada, Mérida, Murillo el Fruto, Zarrakastelu eta Erriberriko ikastetxe publikoak.

Material didaktiko eta laguntzako ei dagokienez, José Luis Zurbano Díaz de Cerioren "Educación para la Convivencia y para la Paz" obrako hiru liburuak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzara zuzenduak, argitaratu dira eta etapa bakoitzeko ikastetxe guztiei bidali zaizkie.

Halaber, laguntza eman zaie beste erakunde batzuen ekimenei; adibidez, Caja Madridek bultzaturiko FOROIDEA ekimenari edo "Manifiesto 2000. Por una cultura de paz y no violencia" kanpainari, zeina Cultura de Paz Fundazioak bultzatua baita. Kanpaina horren helburuak honako hauek dira: behar diren baldintzak sortzea, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bakerako hezkuntzari eta bizikidetasunari modu integralean heldu ahal izateko; eskola-elkarteko estamentu guztien parte-hartzea sustatzen duten bakerako

eta bizikidetasunerako hezkuntzako proiektu integratuak planifikatu, garatu eta ebaluatzea, eta ikastetxeetan arrakastaz gauzaturiko eta ebaluatuturiko hezkuntza-esperientzien berri haien artean eman dadin ahalbidetzea, informazio-trukea errazten duten eta berriematea bermatzen duten jarduerak abiaraziz. Asmoa da proiektu hauekin bat egiten duten ikastetxe guztiekin Bakearen eta Bizikidetasunaren aldeko Ikastetxeen Nafarroako Sarea sortzen joatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan"

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan".»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Nafarroako

Parlamentuak hartu zuen erabaki honi buruz: "Nafarroako Gobernua premiatzea Nazioko Gobernuari eska diezaion Unibertsitatei buruzko Lege proiektuaren berrikuspena egiteko behar diren neurriak har ditzan". Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura departamentuko arduradunen bitartez, unibertsitatei buruzko lege proiektuaren inguruan zeuzkan jarrera eta irizpideak adierazi zituen proiektu horren tramitazioan zehar, bai Hezkuntza Biltzarrean bai Unibertsitateen Kontseiluan. Jaun horrek dakien bezala, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoa 2001eko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onetsi zuten Gorteeek, eta urte horretako abenduaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, 307. zenbakian, argitaratu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernu premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernu premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Osasun kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernu premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

“Faktore psikosozialak: arrisku egoerak identifikatzea” izeneko galde-sorta argitaratu da (2.000 ale), zeinaren 28., 29. eta 30. galderak jazarpen psikologiko edo mobbing izenekoari buruzkoak diren. Gai honetan arriskuak hauteman eta ebaluatzeke helburua du.

Informazioaren zabalkunderako “Laneko jazarpen psikologikoa. Mobbing” izeneko dokumentua argitaratu da (5.000 ale).

Jazarpen psikologikoari buruzko afixak argitaratu dira (1.000 handi eta 1.000 txiki).

Dokumentazio hori enpresa, sindikatu, enpresa elkarte eta prebentzioko zerbitzuetan eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzan banatzeko plan bat dago, 2002ko irailetik aurrera.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko teknikariek ere kontuan izaten dituzten arrisku psikosozialak, besteak beste jazarpen morala, enpresetara egiten dituzten aholku bisitetan.

Aurreikusirik dago 2002ko abuztuan eta irailean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko

oinarriko osasun laguntzako zentroetan banatzea aipatutako dokumentazio oinarriko hori.

Horrez gain, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuan Jazarpen Psikologikoaren Biktimen Elkarte sortzeko ekitaldia egin zen, eta bertan parte hartu zuten erakunde autonomoko langile zenbaitek.

Aurreko urteetan ere izan da ekintzarik arlo honetan. Zehazki, 2001ean mobbingari buruzko jardunaldi tekniko bat egin zen eta kanpaina bat faktore psikosozialak ere aintzat har daitezen enpresetan arriskuak ebaluatzean.

Erabaki horren bigarren puntuan Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du zenbait neurri har ditzan, eta beraz, horretara jo beharko duzu gai horiei buruzko informazioa lortu nahi baduzu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean.

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernu premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan”. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Hasteko, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritza Estatuko erakunde bat da, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzako Zuzendaritza Nagusian duena zentralizaturik bere antolaketa. Urtero egiten du ikuskariak laneko jazarpen moralaren gaietan berariaz prestatzeko ikastaroetarako deialdia, ahantzi gabe ikuskari horiek berez duten gaitasun teknikoa eta prestakuntza.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuaren ondoko erabakia bete al den jakiteko “Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion”, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Aipatutako erabakiaren betetze maila egokia da, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua aspalditik dabilelako lanean Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak igorritako lan ildoekin bat datozen hainbat ekintza prestatzen.

Laburturik, honakoa aurreratu dezakegu lan ildo bakoitzaren inguruan:

1. Nafarroako abelbideen inbentario katalogoa etapaz etapa egiten ari da, urtero errege abelbide bat.

2. Erregelamendu bidezko garapenari dagokionez, zenbait ekintza hasi eta egin dira, gai honetan espezialista diren juristen laguntzarekin, eta lan bilera asko egin dira abelbideen gaiak ukitzen dituen beste departamentuetako arduradunekin, baina oraindik ez dugu zirriborrorik, eta 2003rako espero dugu izatea.

3. Etapaz etapa gauzatu beharreko plan baten zehaztapena, epe motz, ertain eta luzerako helburuekin, egun dagoen fasea da aurretiko azterlanen prestaketarena, datu eta dokumentazio bilketarena eta Nafarroako abelbideen inbentario katalogoa egitearena, horiek baitira Nafarroako abelbideak berreskuratzeko planaren barrenean epe motzera bete beharreko helburuak. Ondoren, eta abelbideen gaur egungo egoeraren ebaluazioa behin amaiturik, bigarren fasean horien garapen eta sustapenari ekingo zaio, epe ertainean, oinarrizko proiektuak eta xehetasun azterlanak barne harturik; horren exekuzioa epe ertain eta luzerako kronograma baten bidez planifikatuko da, hautabideekin batera, eskura dauden finantza-biderako aukeren eta bitartekoen arabera.

4. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta Foruzaingoak proposatu eta jarri du abian ekintza multzo hori.

5. Larrez larreko abeltzaintzan abelbideekin zerikusirik ez duten faktoreek ere esku hartzen dute, jarduera ekonomiko pribatua baita, eta gaur egun abeltzaintzari ematen zaizkion dirulaguntzen menpe dagoena gaur egun, neurri handi batean.

6. Nafarroako abelbideen gaineko jarduketa guztietan aintzat hartu beharreko jarraibide teknikoak Departamentu honen menpeko Mendi Ataleko zerbitzu teknikoek ezartzen dituzte modu iraunkor eta jarraituan, arlo honetan aplikatzekoak diren foru lege eta dekretuetan hala ezarririk baitago; hortaz, jarduketa espediente bakoitzak bere baldintzak izaten ditu.

7. Departamentu honek era guztietako lankidetzetan aritu da, aritzen da eta arituko da zabalkunde, sentsibilizazio, ingurumen hezkuntza eta boluntarioratzeko kanpainetan, bai eta parte hartu ere hala eskatu edo gonbidatu duten ente eta zerbitzuek proposaturiko jarduera guztietan, Foru Komunitatean, Estatuan eta nazioartean.

8. Abelbideen arloarekin zerikusia duten gizarte eragile ezberdinen partaidetzari dagokionez, beharrezkoa da ñabardura bat egitea, alegia, jarduketa guztietan eta batez ere prozesu garrantzitsuenetan kontuan hartu direla Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentu honek Estatuko Ingurumen Minis-

terioarekin izenpeturik dauzkan hitzarmenen garapenak.

9. Departamentu honi dagokionez, erabilera osagarrien inguruan esan beharra dago ezen, oinezkoen erabilera, ibiltariena eta zaldiz eta bizikletaz ibiltzea sustatzeaz gain -betiere abereen joan-etorriak errespetaturik-, pentsaturik dagoela Foru Komunitateko abelbideen sarea korridore ekologiko edo bide berde gisa ere sailkatzea, Natura 2000 Sareari gehitzeko, gai honi buruzko Europako zuzentarauetan aurreikusiriko helbu-

ruen barruan, hala nola Natur habitatak eta fauna eta floraren kontserbaziorako 92/43 eta gai berari buruzko 97/62.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredia” izeneko proiektua bultzatzen dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredia” izeneko proiektua bultzatzen dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredia” izeneko proiektua bultzatzen dezan”. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen bitartez, liburutegiaren politikarako jarraibideak prestatu zituen lege-

gintzaldiaren hasieran, lau xede handitan zehaztuta:

1. Liburutegiaren sistema arautzeko esparruaren garapena.

2. Liburutegi eredu berri bat ezartzea, oinarri hauetatik abiatuz: zerbitzuen modernizazioa eta herritarrek informazioa, prestakuntza, ezagupenak eta kultur aisia eskura izan ditzaten bermatzea, informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiliz.

3. Liburutegietako dotazioak modernizatzea, giza baliabideak handitzea eta liburutegiaren sistema berrantolatzea.

4. Nafarroako Liburutegi Nagusi berriaren proiektua garatzea.

Jarraibide eta jarduketara ildo hauek “Nafarroako liburutegi publikoen eredia” izeneko proiektuan dauden proposamenen esparruan sarturik daude. 2002an gauzatzen ari diren ekintzak alderdi hauen ingurukoak dira: arau garapena, liburutegi eredu berria ezartzea, liburutegi instalazioen modernizazioa, giza baliabideak eta liburutegiaren sistemaren berrantolaketa eta Nafarroako Liburutegi berriaren proiektuaren garapena.

Arau garapenaren arloan, Gobernuak arau esparru orokor bat egin dezan eskatu dio Nafarroako Unibertsitate Publikoari, liburutegiaren esparrua barne, batez ere liburutegiei buruzko etorkizuneko foru legearen erregelamenduko garapenari buruzkoa. Helburua da liburutegiei buruzko foru legea izatea egungo legegintzaldia

amaitu baino lehen. Bestalde, liburutegi publikoen kudeaketarako esparru hitzarmen bat onetsi da, eta horren aplikazioa liburutegiei buruzko foru legearen onespenak baldintzatuko du.

Liburutegien eredu berria ezartzeko beharrezkoak da baldintza batzuk betetzea, esaterako liburutegirako zerbitzu eta baliabide berriak eskuratzeta: Internet, posta elektronikoa, baliabide elektronikoa eta multimedia etab. Zerbitzu eta baliabide horiek Nafarroako gobernuak kudeatzen dituen liburutegi guztietara ailegatuko dira 2002. urtean. Bestetik, Liburutegiko zerbitzuen automatizazioaren ondorioak dira, besteak beste, funts dokumentalak katalogatu beharra (sistemak dituen funtsen % 85 inguru informatizatu da eta 2002an sareko 17 liburutegik izanen dituzte katalogoak informatizaturik), mailegu zerbitzuaren automatizazioa (sareko 17 liburutegik eta Nafarroako Liburutegi nagusiak eskaintzen dute 2002an dagoeneko modu automatizatuan katalogo kolektiboan kontsulta egitea eta hura ikustea), ABSYS liburutegien kudeaketarako programa ezartzea (liburutegien sistemak 100 lizentzia dauzka), profesional eta erabiltzaileentzako baliabide birtualen gidak prestatu beharra, 2002an liburutegien sistemaren web orria garatzea, katalogo kolektiboaren zerbitzuak eta agiriak eskura jartzekoa sarean paratzea eta Nafarroako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa (automatizatu) prestatzea.

Liburutegien eredu berriak ekarri du, halaber, material berriak modu zentralizatuan erostea euskarri informatikoan, langileak prestatzea eta haien profila egokitzea informazio eta komunikazioaren teknologietan sartzeko, liburutegiaren ebaluazio integralerako sistemak sartzeta (liburutegien analisirako programa) eta liburutegien arloko lankidetzarako sare eta sistemetan sartzeta hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak sustaturiko ekimene-tatik abiatuturik.

Liburutegiko instalazioen modernizazioari dagokionez, 2002an, aurreko legegintzalditik heldu diren ekimenei jarraipena emateko, 6 liburutegiren eraikitze lanak amaitu dira eta dirulaguntzak emanen zaizkie liburutegiak sortzeko 5 proiekturi, beste hainbeste herritan. Era berean, 2002an 4 liburutegi hornituko dira altzariz eta

beste 12 udal liburutegiren hornikuntza hobetuko da.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri baliabideen eta liburutegien sistemaren berrantolaketaren arloan, liburutegiko arduradunen artean barne mugikortasunerako prozeduraren aplikazioak, sareaz arduratzen diren langileentzako lekualdatze lehiaketa baten deialdiak eta Liburutegi Nagusian liburutegiko laguntzaile lanpostuak betetzeko oposizioaren deialdiaren ebazpenak behin-behinekotasuna murrizteko aukera emanen dute. Nafarroako liburutegien sistemaren berrantolaketaren esparru honetan bereziki garrantzitsua da Liburutegien Zerbitzua, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren Atala eta Liburutegien Sarearen Atala sortzea.

Azkenik, 2002an hasiera eman zaio Iruñeko HAPOn aldatzeko espedienteari, Nafarroako Liburutegi berriaren proiektua garatu ahal izateko, haren oinarritzko proiektua urte amaierarako erredaktaturik egonen baita.

Ekintza, proiektu eta programa horien garapena ekitaldi honetan erabilgarri dauden giza eta gauza baliabideen arabera da. 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuaz baliatu behar izatea ez da oso lagungarria izan ekimen berriak hartzeko edo abiarazten ari diren ekintza batzuetarako nahiko genukeen eta aurreikusitako genuen garapenari begira. 2002ko gertaerarik nabarmena izan da, dudarik gabe, Liburutegien Zerbitzuaren sorrera, aurretiko eta nahitaezko urratsa baita Nafarroako liburutegi publikoen sistema modu koherentean garatzeko. Nafarroako Parlamentuak liburutegiei buruzko foru lege bat hemendik ez oso epe luzera onesteak ezarriko du beste mugarri bat, "Nafarroako liburutegi publikoen eredu" bultzatu ez ezik Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei oinarritzko zerbitzu moderno eta eraginkorra hobetzeko bidean ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gorteek gasolinaren gaineko zerga igotzeko hartu den neurria arbuiatzen dute”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gorteek gasolinaren gaineko zerga igotzeko hartu den neurria arbuiatzen dute”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gorteek gasolinaren gaineko

zerga igotzeko hartu den neurria arbuiatzen dute”. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako tributu ogasunak ez du biltzen hidrokarburuen gaineko zerga, ez baitu horretarako behar den araudirik.

Halere, Nafarroan hidrokarburoen prezioaren bilakaera Espainian izan duen berbera da, eta beraz Nafarroako herritarrek herrialdeko beste tokietakoek bezala ordaintzen dute.

Parlamentuak arbuiatu duenez Nafarroako Gobernuak bere garaian zerga hori arautzeko proposatutako lege proiektua, Nafarroako tributu ogasunak ezin ditu bildu eta ez ditu jasotzen zerga horrek urtero ematen dituen hamabost milioi euro horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan". Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Biltzarreko Osoko Bilkuran 2001eko irailaren 20an azaldu genuen bezala, Nafarroan ez dira ez baldintza objektiboak ez gutxieneko beharkizunak ematen berrindustrializazio plan bat egitea justifikatzeko. Ugari dira hori segurtatzen duten datu objektiboak; horietako batzuk aurrerago azalduko ditugu. Horrenbestez, berrindustrializazioa alde batera utzita, desegokia izateagatik, egokiagoa da industria, lehiakortasuna, berrikuntza, lurralde garapen orekatua eta abar sustatzea.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernua aplikatzen aritu den industria politikak sakon-sakonekin lantzen ditu alderdi horiek, argi definiturik dago eta, zalantzarik gabe, lagungarri suertatu da autonomia hau izan dadin azken urteetan hazkunde tasetan eta langabeziaren ehunekoetan probetxu onenak atera dituenak.

Hori gauzatzeko, politika hori elkarrekin loturiko hiru programatan egituratuta dago: Berrikuntza teknologikoaren sustapena, inbertsioa eta enplegua sustatzea eta industriarako lurzorua sustatzea.

